

TOKIKOM

2023ko otsaila | 233. zenbakia

ai!k!r!

txorierriko aldizkaria

zorrizketan
lezamako euskera alkartea



URTE



Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?





Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemale ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

-  **4** Iritziak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **12** Gurean izan da... Amelia Tiganus, aktibista
-  **14** Gaztea eta... Uxue Olabarrieta, estetizista
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Menditik patxadaz... Eguzki-erlojuak
-  **20** Zorritzetan elkarrekin 25 urte bete ditu
-  **24** Memoria historikoa, ikuspuntu artistikotik
-  **26** Topaleku Parkea, Sondikan
-  **28** Anpuluek neska gazteen taldea
-  **30** Babestutako edukia... Gurena zahar-egoitza
-  **31** Emaus Fundazioa
-  **32** Herbarioa... Kipula
-  **34** Teknologia... Emari aplikazioa
-  **35** Hileko argazkia... Egunsentia Lezaman
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Amelia Tiganus, aktibista



28 Anpuluek neska gazteen taldea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko
Euskara Elkarten Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx
komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 /
747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Maketatzailea eta erredaktorea: Gaizka Eguzkitza

Kolaboratzaileak: Belen Gana, Iñaki Olabarrieta, Jose Angel Mentxaka,
Joanes Camara, Ane Piriz, Alex Albarrán, Idoia Andres, Célia Atset eta @
txiribitakosme

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Kattalin Barcena (688 782 642)

Banaketa: Baires

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzukizunik

Irristakortasunean egonkortasuna

Orain dela bi aste edo, mezu elektroniko bat ailegatu zitzaidan aholkularitza-bulegotik, autonomoen kuota igoko dela adierazteko. Mezuaren azalpen fiskalak ulertu nahian, hainbat bider irakurri nuen hura, baina gaur egun ere dakidan bakarra da ondo ulertzen ez dudun zenbatekoaren igoera ordaindu behar dela, beste barik. Ez dut zalantzan jarri nahi erabaki hori hartu dutenen gaitasun profesionala eta borondate

“Autonomook berriz ere ezinbesteko bihurtuko gara eta berriz ere ez dugu inongo aitortzarik jasoko”

ona; hala ere, oso esanguratsua da garai latzetan, esaterako, pandemian, autonomoei ahalegin “estra” eskatu izana. Autonomook badakigu azken urteotan lur irristakorrean gabiltzala, nahiz eta egonkortasuna aurkitzeko ahaleginetan ibiltzen garen.

Azken urteak oso gogorak izan dira autonomoentzat. 2020. urtea, adibidez, oso latza izan zen eta hori denok dakigu: autonomook eta autonomoak ez direnek ere bai. Garai hartan, etxean konfinatuta eta ezer fakturatu barik pandemian geundela, autonomoek ordaintzen genituen zentzurik gabeko kuotak ezinbesteko bilakatu ziren sistema osoari eusteko. Hala eta guztiz ere, publikoki behintzat, meritua bakarrik aitortu zitzaizen zerbitzu sanitarioetako langileei, suhiltzaileei eta polizia. Ez ulertu txarto, irakurle; ondo neritzon esandako guztiei euren lana eta ahalegina aitortzea, baina ez nuen



AITOR COTERÓN

Ikus-entzunezko ekoizle ekintzailea

bidezkotzat jotzen batzuei hainbeste txalo eta berba egitea, eta beste batzuei ezer ere ez. Antza denez, berriz ere ezinbesteko bihurtuko gara eta berriz ere ez dugu inongo aitortzarik jasoko. Oinarrizko beharrianen –argindarra, esate baterako– salneurriek gora egiteak eragindako ondorio ekonomikoen “salbatzaile” bihurtuko gara, eta ez nago ados; horrela behintzat, ez.

Autonomoon ahaleginak isilpean bete dira sistemaren mesederako. Sistemaren ahaleginak noizko autonomoon mesederako?

Uraren balioa

Gure amomek, buruan kantarua hartuta, iturritik etxera ekartzen zuten edateko ura eta errekarra joan behar izaten ziren bogadea egitera (arropa garbitzera) edo ganaduari ura ematera. Gure gurasoek eta guk geuk ere egin izan genuen behar hori, harik eta geure eskuz eta ahaleginez etxe aurrean patina atera genuen arte. Aurrerapen galanta!

Gure inguruko baserri gehienek izan dute patina edo ur putzua. Gerora etorri



BELEN GANA

Euskara-irakasle erretiratu

zen ura etxeetara. Hori bai aurrerapen bikaina, Partzuergoak kudeatu eta zerbitzua kobratzen diguna, eta gure bizitza errazten duena. Zer litzateke aurrerapen hau ez balego!

Orain, geuk eraikitako patinetik datorren lurpeko ur hori kobratuko digula diosku Partzuergoak, euren delakoan. Mantenu eta garbikuzi zerbitzuak gure kontu, noski. Beraz, zerbitzurik eskaini ez, eta ura beste barik kobratu gura dute. Amalurrak emandako baliabide naturalak inorenak al dira, bada? Lur azpiko, mendietako, itsasoetako urek ba al dute jaberik? Laster aireagatik ere kobratuko digute, urarekin hasi dira eta.

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
-Especialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurrikortua duen
-Especialitatea: umeak
Urtebe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

Zamudioko krosa berriro ere arrakastatsua



Otsailaren 5ean, eskola- eta herri-krosa izan ziren bigarren aldiz Zamudion, Beste Bira atletismo-klubak antolatuta. Egun horretan ere atletismo-proba garrantzitsu batzuk egin ziren, baina horrek ez zuen itxuragabetu Zamudioko saioa, oso arrakastatsua izan zen eta. Herri-krosean, esaterako, 100 korrikalari ibili ziren, eta ume asko batu ziren eskola-krosean. Gainera, 200 metroko lasterketa Aitor Blanco Zamudioko jaurtitzailearen omenez egin zen, orain dela gutxi zendu dena.

Omenezko lasterketa baino lehen, ekintza egin zen Blanco gogora ekar-

tzeko. Bertan parte hartu zuten bere senideek, berarekin aritzen ziren hiru jaurtitzailek eta Igotz López Zamudioko alkatea; aureskua ere dantzatu zen. Ondoren, oroimenezko lasterketa hasi zen eta guztira hiru lasterketa egin ziren 2015etik aurrera jaiotako umeentzat. Era berean, eskola-krosa izan zen benjamin, kimu, ume eta kadete kategorietan. Bestalde, herri-kroseko irabazleak hauek izan ziren: urrea, Laia Cariñano eta Pablo Maldonado; zilarra, Eider Muñoz eta Igor García; eta brontzea, Adriana de Prado eta Asselhi Oussama. Sariak egon ziren emakumeen eta gizonen kategorietako sei

lehenentzat, eta opariak zozketatu ziren parte-hartzaileen artean.

Esan moduan, otsailaren 5ean ere beste atletismo saio batzuk egin ziren. Anoetako belodromoan, esaterako, Euskadiko txapelketa egin zen eta Javi Allende, Beste Birako korrikalaria, irabazlea izan zen M45 kategoriako 800 metroko lasterketan. Allendek 2:06:51 marka egin zuen eta horri esker Espainiako txapelketan hartuko du parte martxoan Antequeran. Klubeko Oskar Martinek eta Javi Aguirrek ere emaitza ezin hobea izan zuten: lehena Euskadiko txapelduna izan zen M40 kategoriako 1.500 metroko lasterketan, eta bigarrena, brontzea 300 metroko txapelketan.

Munduko errekorra

Bestalde, aipatu beharra dago Javi Allende Sondikako atletak 4 x 800 metroko probaren munduko errekorra hautsi duela pista estalian eta M45 kategorian. Lasterketa Donostian egin zen, Antonio Elorza belodromoan, eta Allenderen taldean ibili ziren Sergio Román, Rubén Barrio eta Oscar Fernandez. Hurrengo marka hau egin zuten: 8:27:08; eta aurrekoa hiru segundoan hobetu zuten. Bestalde, iazko uztailan Allendek eta beste hiru korrikalariak 4 x 800 m-ko probako munduko errekorra hautsi zuten M45 kategorian eta aire zabalean: 08:26:22.

Lanak Sondikan

Sondikako Udalak jakinarazi duenez, Kultur Etxeko teilatua egoera txarrean dago, eta ondorioz, hezetasuna egon daiteke. Hori dela-eta, teilatua konpontzeko lanak hasi dira. Udalak 72.886 euro ipiniko ditu konpontze-lanak egiteko. Lanak amaitzen direnean kultura-jarduerak berriro antolatuko dira eraikinean.

Bestalde, CD Sondika klubarekin adostu moduan, hainbat hobekuntza egiten dabil tza Basozabal futbol-zelaian. Alde batetik, gaur egungo argien ordez LD argiak ipiniko dira, eta bestetik, aldagelak berrituko dituzte. Azken horri dagokionez,



bi aldagela gehiago atonduko dira –guztira lau–, altzari berriak ipini, eta suspertze- eta masaje-gela ere jarriko dira. Eraberritze-lanetan 375.216 euroko inbertsioa egingo da: 131.565 euro, argiak aldatzeko, eta 243.651 euro, aldagelak berritzeko.

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Tamara Garrido Soba da otsaileko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



Zamudioko baserriak batzen dituen lana prestatzen dabilza

Labayru Fundazioaren bitartez eta hainbat herritarren laguntzarekin, *Zamudioko baserriak* argitalpen grafikoa prestatzen dabil Zamudioko Udala. Lanaren helburua da herriko baserriak eta euren izenak ezagutzea eta zabaltzea, ahoz zein idatziz, etxean zein Zamudioko eta inguruko ikastetxeetan. Herritarrek otsailaren 28ra arte egin ahaliko dituzte baserrien izenen edo deskribapenen inguruko ekarpenak. Horretarako, www.zamudio.eus webgunera jo behar dute; lana ere webgune horretan dago ikusgai.



Sondikak ke-detektagailuak ipiniko ditu nagusien etxeetan

Sondikako Udalak jakinarazi duenez, bakarrik bizi diren 70 urtetik gorako pertsonen etxeetan ke-detektagailuak ipintzeko lizitazioa abiarazi du. Enpresa esleipendunarekin kontratua sinatu ondoren, herritarrekin ipiniko dira harremanetan, interesa duten jakiteko eta, hala badagokio, instalazioa egiteko. Udalak 67.712 euro bideratuko ditu ke-detektagailuak ipintzera. Aurreikuspenaren arabera, bi hilabete beharko dira ke-detektagailu guztiak ipintzeko.

Bizikletetarako aparkalekua jarriko dute Derioko tren geltokian



Derioko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena sinatu dute, BiziPark sarearen barruan, herrian bizikletetarako aparkalekua jartzeko. Aldundiak 60.000 euroko dirulaguntza emango du, eta udalak aparkalekua kudeatuko du. Bizikletak tren-geltokiaren alboan, Herriko plazan aparkatuko dira.

Aparkalekuak gutxienez 20 plaza izango ditu, eta ezaugarri hauek: sarrera-kontrola eta kudeatzeko softwarea; barruko argiak beti egongo dira piztuta; armairu batzuk, erabiltzaileek bertan gauzak gordetzeko; eta zaintza-sistemak eta Derioko Udaltzaingoa lotutako kamerak. Aparkalekua beti egongo da zabalik, urteko 365 egunetan, eguneko 24 orduetan. Hilabeteen erabiltzeagatik, lau euro kobratuko dira; hiruhilekoan, 10 euro; seiuhilekoan, 20 euro; eta urte osoan, 40 euro. Bi asterik behin behintzat erabili beharko da, aparkalekua bizikletak gordetzeko toki ez bilakatzen.

Hamasei urtetik gorako edozein lagunek izango du aparkalekua erabiltzeko aukera, Derion erroldatuta zein

ez erroldatuta egon. Eskaera-kopurua leku-kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo da. Proiektuaren aurkezpenean batu ziren Miguel Ángel Gómez Viar Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko sailburua, Esther Apraiz Derioko alkatea eta zenbait teknikari. "Abenduan, bizikletetarako aparkalekua jarri genuen eskolan. Udalak mugikortasun iraunkorra bultzatzeko eta bizikleta garraiobide osasungarri gisa erabiltzeko konpromisoa erakutsi du, eta bizikletetarako aparkalekuak horren adibide dira. Aparkaleku berriak, gainera, garraiobideen arteko intermodalitatea sustatuko du, ibilgailu pribatuaren kalterako", esan du Apraizek.

Deriokoa ez da Bizkaian jarriko den aparkaleku bakarra. Aldundiak 360.000 euro bideratuko ditu sei herriekin hitzarmenak sustatzera: Derio, Barakaldo, Gueñes, Abadiño, Bermeo eta Zalla. Uztailan, Ermuan ireki zuten lehenengo aparkalekua. Txorierrin, Zamudion, Euskotrenek aparkaleku antzeko bat jarri zuen martxan 2019an.

Alaia
Fruta-denda
Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua
Tall. 5
48170 Zamudio
946 850 585

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburumbata:
8:00-13:30
Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419

Bizkaiko Foru Aldundiak proiektua aurkeztu du, Asuako Makroren inguruan, BI-735 errepidearen sestra-maila igotzeko. Lanek inguruan uholdeek sortzen duten kaltea gutxitzea dute helburu. Horretara, 1,8 milioi euro bideratuko dira. Lanak udan hasiko dira eta zazpi hilabete inguru iraungo dute. Aldundiak aldaketak egingo ditu Erandiogoikoaren elkargunearen eta Makro merkataritza-zentrora doazen ibilgailu astunentzako sarbideen artean. Alboan, erreka bat dago, baina ez diote horri eraginik egin nahi. Horretarako, errepidea estutuko da eta Makroren aurrean biribilgune bat jarriko da. Beraz, merkataritza-gune horretara sartzea eta handik irtetea hobetuko da eta gaur egun ezkerretara egiten diren birak saihestuko dira.

Imanol Pradales Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuak eta Aitziber Oliban Erandioko alkateak proiektuaren berri eman dute. "Inguru horretako drainatze-baldintzak kontuan hartuta, ubideen edukiera hidraulikoa gehitzea baztertu zen, eraginkortasun handirik izango ez lukee-

Lanak Asuaren inguruan, uholdeen kaltea txikitzeko



lako. Eta azkenean aukeratu da sestra-maila igotzea 500 metroko tartean", esan du Padralesek. "Oso berri ona da errepide horretatik dabilzan gidarientzat eta

bertakoentzat, errepide-tarte hori urez betetzen den bakoitzean inguruko zirkulazioa nahasi egiten delako", aipatu du Olibanek.

Lorategia
Pintura
Elektrizitatea
Makinak
Brikolajea
Hornidura
Sukaldea
Komuna
Iturgintza
Torlojugintza
Sarrailak
Laster! Giltzen kopiak

Etzetresna elektriko txikiak

DEWALT
LOCTITE
tesa
Rubson
cofan
Tangit
Pattex

Katalogo zabala

Ekipatu

Burdindegia



Astelehena-ostirala
8:30-13:30/15:00-18:00
Larunbata
10:30-13:30



Aparkaleku propioa atean



tiendasondika@ekipatu.com



722 819 774

Txorierri etorbidea 15
SONDIKA

Lan-baldintzak hobetzeko borrokan jarraitzen dute etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileek



Txorierriko etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileek berriro grebara deituta daude otsailean, eta hainbat ekintza egin dituzte, euren lan-egoeraren berri emateko, hala nola autoen karabanak, elkarretaratzak eta sinadurak biltzea. Jakinarazi dutenez,

enpresaren eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen ordezkariekin batu dira, eta hobekuntzak agindu dizkiete lan-antolaketari eta autoa aparkatzeko erraztasunei buruz; "hala ere, zortzi urte dira soldata igo ez digutela, eta,

gainera, gure autoa erabili behar dugu menpekotasuna duten pertsonak artatzera joateko: horiei buruz ez digute ezer esan".

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak enpresa bat kontratatzen du etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateko, eta langileek urtarrean ere hainbat mobilizazio egin zituzten, euren lan-baldintzak salatzeko. Esan dutenaren arabera, 2015etik ez diete soldata igo, eta, bere beharrezanaren arabera, enpresak lan-ordutegia egun batetik bestera aldatu ahal die. Era berean, euren autoa erabili behar dute mendekotasuna duten pertsonak artatzera joateko, eta kilometroko 0,28 zentimo ematen diete.

Txorierriko etxez etxeko zerbitzuak guztira 25 langile ditu: batzuk behin betikoak dira, eta beste batzuk, behin-behinekoak. Azken horiek ezjakintasun erantsia dute, ordu gutxiako kontratuak dituztelako eta enpresak kontratuak noiz-nahi aldatu ahal dituelako; hortaz, ez dakite hilaren amaieran zenbat kobratuko duten. Azkenik, salatu duten moduan, "lan fisikoa egin arren, bizkarreko mina ez da laneko gaixotasuntzat hartzen".

Aspaldi honetan herriko osasun-zerbitzuan dauden gabeziek kezkatuta, Larrabetzuko eragile eta herritar batzuek osatu dute LOPA plataforma: Larrabetzuko Osasun Publikoaren Aldeko plataforma. Azaldu dutenez, plataformaren helburua da "osasungintza unibertsalaren, publikoaren eta kalitatekoaren alde egitea, Larrabetzun lehen arreta bermatzea eta hori kalitatekoa izatea".

Plataformako kideek aldarrikatu duten moduan, "Euskal Herriko gainerako herritarrek lege, Larrabetzuko herritarrok egunero behar dugu lehen arretako osasun-zerbitzua, eta berton jasotzerik ez dugunean, Galdakaora, Usansolora edo Basaurira joan behar dugu; hori traba bat gehiago da gaixoarentzat edo joan-etorria egiteko erraztasunik ez duenarentzat. Ondorioz, ez dugu kalitateko arreta-zerbitzurik jasotzen". Euren ustez, albait ari-

Osasun publikoaren aldeko plataforma au



nen zuzendu beharreko egoera da eta, horretarako, hurrengo hauek eskatzen dizkiote Osakidetza: Larrabetzuko an-

bulatorioan osasun-zerbitzua egunero bermatzea arreta presentzialaren bitartez; analisi klinikoak eta gainerako oinarriko

Loiuko Etxebizitza Plana onartu du Aldundiak

Loiuk 7.000 biztanle baino gutxiago ditu eta, ondorioz, ezinbestekoa da Bizkaiko Foru Aldundiak haren etxebizitza plan partzialak onartzea. Hori dela eta, udalak Ariztondo-Txiline Sektoreko Plan Partziala bidali zion, hori aztertu zezan. Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak jakinarazi zuenez, Aldundiak plana onartu du. "Oso albiste ona da, 25 urte badirelako udalerrian etxebizitzarik eraikitzen ez dela. Garrantzi handiko lorpena da Loiuko etorkizunerako, bizitegi-auzo berria sortuta udalerriaren fisonomia aldatuko du eta".

Begoñaren esanetan, etxebizitza-arloan gazteak dituzte lehentasun. "Lanean gabiltza udalerrian etxebizitzak izateko eta gazteei independizatzeko laguntzeko. Izan ere, urte hauetan etxebizitza gehiago eraiki ezin izateak ekarri du belaunaldien arteko erreleboa gero eta zailagoa izatea". Azaldu duen moduan, Loiu sendotzeaz gainera, etxebizitza-plan berriak herriko merkataritza ere berpiztuko du. Sektorean 450 etxebizitza eraikitzeak asmoa dute, eta inguruan, besteak beste, berdeguneak eta pasealekuak atundu. Bestalde, aipatu beharra dago aurretik AENak, AESak eta ENAIREk ere etxebizitza-planaren aldeko txostenak egin zituztela.



rkeztu da Larrabetzun

artatzeak herrian bertan egitea; hitzordua eskatzea errazagoa izatea eta horretarako aukera gehiago egotea; hitzorduetan atzerapenik ez egotea; eta aurreko guttia bermatzeko, behar adina langile eta baliabide ekonomiko eta material ipintzea. "Osasungintza unibertsalaren, publikoaren eta kalitatekoaren bidez baino ezingo dugulako gure etorkizuna bermatu".

Bestalde, aipatu dute antzeko egoeran daudela Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako milaka herritar. "Arazoa estrukturala da, ez dio bakarrik lehen arretari eragiten eta aspalditik dator. Urtero-urtero osasungintza publikoa pribatizatzeko hartu dituzten erabaki politikoak dira gaur egun bizi dugun egoeraren erantzuleak".

Bertso Afaria

Baserri Antzokian



Etxahun Lekue

Ane Labaka

Enare Muniategi

Jone Larrinaga

Gai-jartzailea: Iñaki Arbildu

Apirilak 1

Zapata

21:00etan

20€

Ostean Erromeria!

Sarrera doainik
12:00etatik aurrera

Sarrerak Salgai

Martxoaren 6tik aurrera

Oxangoiti tabernan (Lezama)
Zamudioko liburutegian
Baserri Antzokian
Whatsappez: 686 25 68 54





Joseba Apezetxeak irabazi du Goya argazkilaritza-saria



Joseba Apezetxea zamudioztarrak bigarren aldiz irabazi du Goya argazkilaritza-saria, grafiko atalean. Sariak Aragoiko Argazkilari profesionalen Elkarteak (AFPA) ematen ditu bi urterik behin, 1983. urtetik hona. Saria oso garrantzitsua da Es-

tatuan, eta Apezetxeak oso "hunkituta" jaso du. Zamudioztarrak ibilbide luzea du argazkilaritzan, lanean 33 urte daramatzalako.

"Zortea izan dut: ez nuen aurten argazkirik bidaltzeko asmorik, baina azkenean

zerbait bidaltzea erabaki nuen, eta emaitza ezin hobea izan da. Pentsatzen nuen beste argazkiak nireak baino politagoak izango zirela, baina azkenean nirea aukeratu dute. Oso hunkigarria izan zen, batez ere saria argazkilariek eurek ematen dutelako. Horrek esan nahi du lan onak direla", esan digu Zamudioko argazkilariak.

Apezetxeak Bilboko Areatzan, Arriaga Antzokiaren aurrean, egin zuen argazki irabazlea. Zuri-beltzez ateratu zuen eta bertan hurrengo eszena hau dago ikusgai: kaleko mimo bat, Jesu Kristo jantzita eta gurutzeari lepoan duela; bere atzean, mutil gazte bat keinuka dabil; eta aurrean, gizon nagusiak begiratzen die mutil bari. "Argazkian hiru garai harrapatu ditut: Jesu Kristo, agurea eta gaztea. Bitxia iruditu zitzaidan".

Apezetxeak grafiko atalean irabazi du saria. Horretaz gainera, beste bost kategoria daude: erretratua, ezkontzak, haurrak, jaun-hartzeak eta gai librea. Eta bakoitzean, epaimahaiak 10 argazki aukeratzeko dituzte. Goya sariak hainbat aldiz hartu dute kontuan Apezetxearen lana. Izan ere, 2013an industria-publizitate kategorian irabazi zuen. Gainera, zortzi aldiz izendatu dute hautagai. Sariak banatzeko gala otsailean izan zen Zaragozan.

Marea moreak gora berriro ere

“Denon bizitzak erdigunean” lelopean, mugimendu feminista Martxoaren 8an berriro aterako da kalera, aldarrikatzera, alde batetik, gaur egungo zaintza-eredua iraultzeko beharra, eta, bestetik, mendekotasun-egoerez haratago, pertsona guztiok gure bizitza osoan zaintzak askatasun, duintasun eta konpromiso-balditzetan eman eta jasotzeko eskubidea. Marea moreak Txorierriko kaleak ere hartuko ditu, eta elkarretaratzeez gainera, beste ekintza batzuk egingo dira, hala nola, bertso-saioak, azokak, kirol-ekintzak eta tailerrak.

Otsaileko alean ixtean, Txorierriko talde feministetako batzuek antolatu dituzten ekintzak jaso ditugu, baita udal batzuek antolatutakoak ere. Beraz, adi egon, datozen egunotan ekintza gehiagoren berri emango da eta. Derion, esaterako, Koxak talde feministak elkarretaratzerara deituko du Martxoaren 8rako, eta laster jakinaraziko dute non eta zein ordutan. Era berean, martxoaren 11n, goizean, Dantzalaba dantza-tailerra egingo dute Marikobason.

Moreak Lezamako talde feministak bertso-saio feminista antolatu du bertako udalarekin batera. Bertso-saioa martxoaren 4an, 12:30ean, izango da Kultura Aretoan eta hauek ibiliko dira bat-batean: Onintze Enbeita, Oihane Bartra eta Josune Aramendi. Martxoaren 8an, hitzordua 18:30ean ipini dute plazan, hori apaintzeko, eta 19:00etan elkarretaratzea egingo dute. Beste aldetik, Lezamako Udalak antolatuta, martxoaren 3an, 18:30ean, “La mujer y el deporte profesional: reconocimiento e igualdad” mahai-ingurua izango da Kultura Aretoan. Azkenik, Berdintasunaren Aldeko Kirolaren Eguna ospatuko dute 24an eta Gaztegunean zein kiroldegian kirol-dinamikak eta tailerrak izango dira arratsaldean.



a. Idoia Andres

Larrabetzun ere ekintzak izango dira Zutunik! talde feministaren eskutik. Martxoaren 8an, 19:00etan, kalejiran aterako dira plazatik, eta martxoaren 12an, 11:00etatik aurrera, Larrabetzuko Emakume Artisauen Azoka izango da plazan. Martxoaren 25ean eta 26an, Emakumeen Pala Topaketa egingo da. Azken ekintza hori Olarreta pilota-klubarekin batera antolatu dute.

Loiun, bestalde, berdintasunaren aldeko mendi-martxa izango da martxoaren 5ean, eta izen-ematea egunean bertan egingo da Herriko plazan, bi euroren truke. Hango udalak azaldu duenez, adin guztietako pertsonentzako ibilbidea atonduko da, sei kilometro ingurukoa, eta kamiseta moreak banatuko dira parte-hartzaileen artean; hamaiketako ere egongo da indarrak berritzeko. Ohikoa denez, Martxoaren 8an, 12:00etan, Herriko plazan batuko dira eta adierazpen instituzionala irakurriko dute; hilaren 10ean, bestalde, udalerriko lau ikastetxeko ikas-

leek berdintasunaren aldeko martxa egingo dute Loiuko errepideetatik, eta 11:00etan Herriko plazan batuko dira euren adierazpenak eta errebindikazioak irakurtzeko. Martxoaren 10ean ere, 19:00etan, “Berdintasuna, funtsezko balioa Europar Batasunean” hitzaldia izango da liburutegian.

Martxoaren 11rako, bazkaria antolatu da Aspaldiko jatetxean. Bazkariaren inguruko ekintzak 14:50ean hasiko dira: adierazpena, bideoak banatzea, omenaldia, opariak banatzea eta musika-saioak, batzuk aipatzearen. Gainera, Luis Gómez herriko eskultorearen lanak ikusgai ipiniko dira jatetxean, emakume loiuztarren omenez. Bazkariak 25 euro balioko du. Azkenik, martxoan zehar berdintasunaren aldeko argazki-lehiaketa egingo da. Lanak hilaren 15etik 30era aurkeztu beharko dira udaletxean edo e-mailez. Guztira 450 euro banatuko dira saritan: 200 euro, irabazlearentzat; 150 euro, bigarrenarentzat; eta 100 euro, hirugarrenarentzat.

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNICIPALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai isagarru Facebook-en

LOREGARBI GARDIKETA ZERBITZUAK
Gardi-ikastak, orokorrean
Auzokoen komunitateak
Mazetako garbi-ikastak
Bulgoren eta ikastak
Olinpiko emakume garbi-ikastak
Ikastetxak
Zahar hileta
Beside Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku
Zerbitzu BERRIAK
Logopedia
Podologia
Krimasajak
clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika
Txarriñen etorbidea, 8 - Lortze | Arriaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com

“Ez nengoen lasai jakinda nire histori

t: Itxaso Marina / a: Cèlia Atset

Prostituzioak 5 milioi euro sortzen ditu egunean Espainian.

Zifra handiagoa da, datua prostituzioa onlineko plataformetara ailegatu baino lehenagokoa da eta. Arma- eta droga-trafikoarekin batera, sexu-esplotazioaren industria kriminala da zilegi ez den munduko industriarik errentagarrietako bat. Ez da hautu pertsonal bat, edo ekonomia lokala; multinazional kriminala da eta pornografia eta gizarte sareak baliatzen ditu. Hortaz, egungo neska gaztetxoek guk jaso genuen mezu bera jasotzen dute, baina hamaika aldiz errepikatuta: gizonengan sexu-desira eragitea da inportanteena. Diru-kopuru itzel horiek lortzen jarraitzeko, lehengaia behar dute eta horregatik ekoizten dituzte putak industria-eskalan. Baita putazaleak ere, industria kriminal hau finantzatu dezaten. Espainia da putazale gehien dituen Europako herrialdea, eta munduko hirugarrena: hamar gizonetik batek aitortu du ordaintzen duela emakume bati zakila sartzeko. Emakume horrek ez du sexurik nahi; dirua behar du.

Zer da prostituzioa abolitzea?

Debekutik bereizi behar da. Debekatzeko-eredua da kontserbadorea eta hipokritia; prostituzioa ikusgai ez izatea du asmo bakarra, eta aktore guztiak zigortzen dituela esan arren, bakarrik emakumeak zigortzen ditu. Ez du giza eskubideei lotutako ikuspegirik. Abolizionistok, berriaz, aldarrikatzen dugu prostituzioan dauden edo egoteko arriskuan dauden emakumeen eskubideak bermatzea eta umeak babestea. Guk ez dugu eskubidetzat jotzen zergak ordaintzea gizonak guri zakila sartzeko, orduan Estatua proxenetak handia bilakatuko litzatekeelako. Guk aldarrikatzen dugu etxebizitza, laguntza ekonomikoa, heziketa, terapia, aholkularitza juridikoa, lana... eta prostituta despenalizatzea. Era berean, proxenetismo-mota guztiak jazarri eta zigortu ditzaten nahi dugu, eta biktimak babestu. Gure ustez, putazaleak ere erantzukizuna dute: sexu-erasotzaileak dira eta bortxatzaileengandik bereizten dituen bakarra billete bat da. Politika publiko horiek ezartzeak eta gazteak hezteak onura ekarriko diote gizarte osoari. Suedia dugu

AMELIA TIGANUS | aktibista

Zapata Gorriak talde feministak antolatuta, Amelia Tiganusek

La revuelta de las putas

liburua aurkeztu du otsailean Zamudion.

Bere esperientziatik abiatuta, pertsonala

politikoa den ideia helarazten digu,

eta hausnarketa

sakona egiten

du prostituzio-

sistemaren

inguruan.

adibide: prostituzioak jarraitzen du, baina oso txikia da, eta gazteentzat pentsaezina da sexuaren truke ordaintzea.

Lan egiteko eskubidearen aldekoa da Prostituzioaren abolizioak kaltetutakoen plataforma.

Plataforma hori osatzen dute prostituzio-etxeetako jabeek edo proxenetek, putazaleek eta libre lan egiten dutela dioten emakume batzuek, eta hilabeteak daramatzate nire kontra egiten. Bere interesak “patronalarenak” dira, eta, bai noski!, nahi dugu abolizioak proxenetak eta putazaleak kaltetu ditzan. Beste aldetik, garrantzitsua da esatea prostituzioan lan egin nahi duten emakumeek legeria abolizionistan ere lan egin ahaliko dutela, ez garelako euren ohe azpian ibiliko, jakiteko kobratu duten ala ez; prostituzioa lantzat hartuz gero, berriaz, euren ohe azpian ibiliko dena Ogasuna izango da. Lobby proxenetak sinestarazi nahi digu hau emakumeen eta emakumeen arteko arazoa dela, baina arazo soziala da eta erantzukizuna dute

gobernariak eta, ezetz entzuteko prest ez daudenez, “bai” erosten duten gizonak.

Nola baloratzen duzu izapideetan dagoen pertsonen salerosketen aurkako legea?

Kezkagarria da arlo batzuetan. Esaterako, ez du putazalea zigortzen, horrek ez badaki emakumea salerosketaren biktima dela; eta, jakina, zaila da pertsona batek dakiena eta ez dakiena frogatzea. Gainera, Europar Batasunaren aholkua da eskaerari pizgarria kentzea, eta ez du betetzen. Bestalde, proxenetismoaren aurkako legea ez da guk nahi duguna, baina uste dugu hasiera ona dela eta es-

“Diru-kopuru itzel horiek lortzen jarraitzeko, putak industria-eskalan ekoizten dituzte”

a behin eta berriro errepikatzen zela”



pero dugu aurrera ateratzea. Azkenik, nire ustez, eta prostituzioak lege oso bat behar duen arren, galdu dugu “Bakarrik bai da bai” legean prostituzioa sexu-indarkeriatzat jotzeko aukera. Izan ere, onespenez gabiltzanean, hura diruak edo zaugarritasunak akasten badu, moral bikoitza sustatzen dugu: emakume batzuek euren sexualitaterako eskubidea dute, baina beste batzuek euren sexualitatea saldu behar dute, biziraun ahal izateko.

Prostituten profila antzekoa da; putazaleena, anitza.

Hegoalde globaleko emakumeak izaten dira prostitutak: Ekialdeko Europa-

koak, latinoamerikarrak, Saharaz hegoaldekoak... Seme-alabak eta gurasoak dituzte euren ardurapean. Putazaleen profila definitzea askoz zailagoa da, berdin diolako bere ideologia zein den, maila sozioekonomikoa... Nola tratatzen gintuztenaren arabera, hiru mota bereizi ditut liburuan. Alde batetik, putazale zintzoak daudela esaten didatengengan pentsatuta ironikoki “jatorra” deitu diodana dago: diruaren truke gure gorputza ez ezik gure afektua ere erosi nahi dute, eta oso krudela da euren zerbitzura gure gorputza ez ezik gure izate osoa ere ipini behar izatea. Bestetik, matxoa: zakila sartzen dieten emakume-kopuruaren arabera hartzen dute euren burua gizontzat, eta pornografian ikusten dutena praktikan ipintzen dute; are gehiago, foro batzuetan emakumeak adinka, nazionalitateka... sailkatzen dituzte eta erronkak botatzen dizkiote elkarri. Azkenik, sadikoa dago: emakumeak umiliatzea eta erasotzea gusatzatzen zaie, eta leku gutxi dituzte praktika horiek egin ahal izateko. Nolanahi ere, gaia gehiago hausnartu eta beste mota bat gehitu dut: putatan joan ez, baina putetxean lagunekin kopa hartzen dutenak. Horiek ere erantzukizuna dute, zeren eta beste taberna batean baino bi edo hiru aldiz garestiagoa den kopa hori hartzen duten bitartean, merkantzia ikusi eta ukitu ahal baitute.

Zein da gizartearen erantzukizuna?

Orain arte batez ere proxenetei buruz hitz egin ohi da, baina isiltasuna egon da putazaleen inguruan. Nondik ateratzen da emakumeak fisikoki eta emozionalki suntsitzen dituen dirua? Gure aitak dira, nebak, lagunak, auzokideak... Prostituzioa banalizatzeari utzi behar diogu; emakumeei sor diegu, baina batez ere neskatoei eta mutikoei, euren erre-

ferenteei begira hezten ari dira eta. Mutikoak enpatian hezi behar ditugu, emakumeak kide moduan ikus ditzaten.

Nola heldu zenion aurre biktima izatetik aktibista izaterako prozesuari?

Gizakiok komunitatea behar dugu osorik garatzeko eta babestuta egoteko. Prostituzioan amaitzen garenon kasuan, horrek hasieratik egin du huts: 13 urte nituela zenbait lagunek bortxatu ninduten aldi berean eta, zigor moduan, komunitateak marjinatu ninduen, eta kanporatu. Prostituzioan 18 urtetik 23 urtera bitartean ibili nintzen, eta handik atera nintzenean suerte handia izan nuen, nigan sinetsi zuten pertsonekin topo egin nuelako. Feminismoa ezagutu, eta hitzak ipini ahal izan nizekion gertatu zitzaidanari eta aurrera jarraitu nuen: lana topatu nuen, etxebizitza, bikotekidea... Hala ere, ez nengoen lasai, banekielako nire historia behin eta berriro errepikatzen zelako: neskatoak egunero bortxatzen dituzte, prostituzioan amaitu daitezten, eta bitartean gizarteak beste albo batera begiratzen du. Ni zerbitzaria nintzen taberna batean eta entzun behar nien bezeroei emakumeak prostituzioan daudela nahi dutelako, diru asko irabazten dutelako... Oso krudela iruditzen zitzaidan eta erabaki nuen errealtate horri aurre egin behar niola.

Hurbiletik

Amelia Tiganus (Rumania, 1984) idazlea eta aktibista feminista da eta ikastaroak ematen ditu prostituzioa eta sexu-indarkeria prebenitzeko, eta gizarte gaitz horiekiko sentikor bihurtzeko. Emargi elkarrearen sortzaileetako bat da, zeinak sexu-esplotaziorik gabeko gizarte lortu nahi duen, eta Nazioarteko Eskola Abolizionistaren fundatzaileetako bat ere bada. Emakumeen eta neskatoen giza eskubideen alde egindako lanari esker, hainbat sari jaso ditu: 2019an, esate baterako, Espainiako berdintasun Ministerioak saritu zuen, eta otsailean bertan Concha Tolosa saria jaso du Ciudad Realeko Diputazioaren eskutik.

“Prostituzioan dauden edo egoteko arriskuan dauden emakumeen eskubideak bermatzea aldarrikatzen dugu”

“Lobby proxenetak sinestarazi nahi digu hau emakumeen arteko arazoa dela, baina arazo soziala da”



*"Azazkalak zaindu,
kolorea eta forma
eman, marrazkiak
gainean egin...
Niretzat oso polita da"*

Azazkalen artista

UXUE OLABARRIETA | estetizista

Nagusi baten azazkal bakoitzak 1,5 zentimetro karratuko azalera du. Leku txiki horietan, berriz, artelan harrigarriak erakutsi daitezke. Uxue Olabarrieta 22 urteko derioztarrak, esate baterako, honetan dihardu: Estetika ikasi zuen eta bere Instagramen kontuan erakusten duenez, azazkalak oihaltzen ditu, diseinu berritzaileak eta koloretsuak bertan egiteko. Azazkalen artista da.

t: Gaizka Eguzkitza / a: U. O.



"Hamazortzi urte nituela, makillajea gustatzen zitzaidan eta Bilbora, Hermanos Larrinaga akademiara, joan nintzen Estetika eta Irudi Pertsonala ikastera. Hala ere, graduak aurrera egin ahala, konturatu nintzen azazkalak lantzea gustuko nuela. Eta ikasketak bukatutakoan, horretan ibili naiz lanean", esan du Olabarrietak. Bere

esanetan, azazkalak apaintzeak ukitu artistikoa du. "Azazkalak zaindu, kolorea eta forma eman, marrazkiak egin... Niretzat oso polita da, gauza berriak asmatzea gustatzen zaidalako. Oso perfektionista naiz eta nahi dudana moduan atera arte, ez dut lana bukatutzat ematen. Ez naiz pazientzia handikoa, baina azazkalak lantzeko, ordea, behar den denbora ematen dut. Gakoa da lana gustatzea".

Derioztarrak makillajea ere ikasi zuen graduan, baina gaur egun ikasitakoa oso gutxitan erabiltzeko aukera du. "Inork ez dizu makillaje artistikoa eskatuko. Ezta makillaje arrunta ere, ezkontza edo ekitaldi bereziren bat egon ezean. Gradua bukatutakoan, ez dugu ezta ikasitakoaren laurden bat ere praktikan jarri. Ezagutza handia izan arren, alferrikakoa da, hori egiteko aukerarik ere ez duzulako. Inauteriak ospatu ditugu otsailean eta horretarako dibertigarria da. Hau da, makillajea zaletasuntzat joko nuke, baina ez ogibidezat. Gainera, gaur egun hainbat tutorial daude Interneten eta edozeinek egin dezake".

Olabarrieta Mungian eta Zamudion ibili da lanean, estetika zentroetan eta ile-apaindegietan. Gaur egun, aldiz, langabezian dago eta bere kabuz negozioa irekitzea gustatuko litzaioke, baina oso garestia da. "Lokala, autonomoen kuota... Gastu asko daude. Ile-apaindegietako lan-baldintzak ere ez dira batere onak: jardunaldi erdian, soldata txikia... Eta Estatuko hitzarmena dago indarrean, ez Euskal Herrikoa, hemengoa azken 20 urteotan berriro ez delako. Estatuan hemen baino merkeagoa da negozioa martxan jartzea".

Azazkalak zaintzea modan jarri da eta horren haritik, lehia handitu egin da,



asiarrek kudeatutako denden eskutik. Uxue leku horien kontra agertu da. "Bertan dena da merkeago: materialek ez dute zerikusirik nik erabili ahal ditudanekin, eta askotan osasun erakundeek ez dituzte material horiek behar bezala aztertzen. Ni gaztetan hara joaten nintzen, merkeak direlako, baina gaur egun ez dut horrelakorik egiten. Bertan lortzen duzun emaitza ez da nik lortzen dudana: nabarmena da nik ikasi dudala eta haiek, ordea, ez".

Gizarte sareak

Lan bila dabilen bitartean, etxekoei eta lagunei apaintzen dizkie azazkalak, "trebetasuna ez galtzeko". "Eta batzuetan nire buruari ere bai, ahal dudan moduan (kar-kar)". Bere lanik onenak Instagramen jartzen ditu ikusgai, @u.beauty_ kontuan. "Gradurako ireki nuen kontua eta apurka-apurka argazkiak igo ditut hara. Nire lanik onenak erakusten ditut, niretzat kontu profesionala delako. Gero eta zale gehiago ditut. Horrezaz aparte, kontu pertsonala ere badut, egunero erabiltzen dudana".

Gizarte sareak eguneroko tresna dira gazteentzat eta bertatik nork bere bizitzaren berri ematen du. Eta estetika gero eta garrantzitsugoa da. "Hori onuragarria da nire lanerako, baina batzuetan gehiegikeriak egiten dira. Esate baterako, ez

da normala 19 urteko neska batek bost ebakuntza estetiko egitea. Bakoitzak baditu bere ezaugarriak, eta hori guztia bada zure mamia. Onartu behar da. Beraz, mugak jarri behar dira. Tamalez, gehiegikeria horietan, gizarte-sareek eragin handia dute".

Esaten da estetika emakumezkoen ardura dela, baita azazkalak zaintzea ere, baina Olabarrietaren esanetan, gizonekoak ere izan ditu bezero. "Gero eta gizonetako gehiagok zaintzen dituzte

azazkalak. Normalean, 40 urte baino nagusiagoek eskatzen dute manikura; eta gazteagoek, denetarik: manikura, beltzez margotzea, xehetasun koloredunen bat... Era batean edo bestean, beti pintura matetan eskatzen didate, distira femeninotzat jotzen delako. Tabu hori ez da oraindik tamalez gainditu". Olabarrietak esan du 20-30 minutu ematen dituela manikura egiteko eta beste 20-30 margotzeko, baina lan handiagoek guztira ordu bi eskatzen dituztela. Nor da hurrengoa?



POLITEKNIKA
TXORIERRI

ATE IREKIAK

Batxilergoa	Martxoak 15 eta 21.
Lanbide Heziketa	Martxoak 21. Maiatzak 2,3 eta 4.

Eman izena >>>

www.politeknikatxorierri.eus





HETEL

*Gero eta gizonezko
gehiagok zaintzen dituzte
azazkalak: nagusiek,
manikura; gazteek,
ordea, denetarik"*

Euskadiko emakumeen lehen greba 1889an egin zen



Euskadiko emakumeen lehen greba 1889ko martxoaren 8an izan zen, Clara Zetkinen Emakume Sozialisten bigarren Nazioarteko Konferentzian Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izendatu baino 20 urte lehenago. Emakumeen lehen greba, Bilboko Santutxu auzoko tabako-fabrika bateko zigarro-saltzaileek egin zuten, lan baldintza hobeto eskatuz. Emakumeek goizeko 7etatik gaueko 10ak arte lan egiten zuten, ez zuten ez jaiegunik ez oporrik, egunero egiten zuten lan jo ta ke, urtean 500 pezetaren truke. Hamabost egunetan, 34.000 zigarro egin behar izaten zituzten. Horrez gain, garbiketarako langileek eurek egin behar izaten zituzten eta kale-garbizaillei langileek ordaintzen zieten euren soldatatik.

“Arrendatario de Tabacos” konpainiak, 1888ko azaroan lanaldiaren ordutegia arratsaldeko 8etatik 10etara luzatu zuten eta 1889ko otsailean gaueko 11ak arte. Ordutegi aldaketaren ondorioz, arazo larriak eragiten zituen gaur egun kontziliazioa deitzen dugun horretan, emakume horiek, lan nekagarriez gain, seme-alabak artatu behar zituzten eta.

Martxoaren 8an greba hasi zen. Langileak matxinatu egin ziren eta zuzendaria inguratu zuten, eta bigarren solairuko leihotik bota zen. Orkatila baino ez zuten dislokatu. Karabineroak fabrikara iritsi eta baionetak eskuetan sartu ziren, baina ezin izan zituzten emakumeak harrapatu. *El Noticiero Bilbaíno* egunkariaren arabera, administratzaileak puruak eta zigarroak langileen aurrean txikitu zituen. Langileek egunak zerramatzaten kezaka, egin behar zuten zigarro-kopurua handitzeaz eta orduak gehitzeaz gain, zigarroak biltzeko ematen zieten paperaren kalitate txarrak lana abiadura egokian egitea eragozten zela. Erretzaileek grebalariei laguntzen zieten eta Santutxuko fabrikatik ateratzen ziren zigarroak «deabrua baino gaiztoagoak» zirela esaten zuten.

Greban, fabrika astebetetz itxita egon zen eta zigarro-saltzaileak gobernadore zibilarekin bildu ziren bere bulegora manifestazioan joan ondoren. Enpresak langileen eskariak onartu behar izan zituen. Txanponaren beste aldea izan zen protestan parte-hartze nabarmena izan zutenen batzuk kaleratu zituztela.

Taldeen arteko lehiaketa berria

Erruletari eman, galderak ondo erantzun eta sari potoloak irabazi

3 lagunez osatutako klana sortu, jokatu eta irabazi puntuak zure taldearentzat

Nork irabaziko du? Puntu gehien egiten duen taldeak

Izena emateko epea otsailaren 26ra arte. Lehiaketa otsailaren 27tik martxoaren 19ra izango da.

Izena eman

Txorierriko bi talde onenetako jokalariek tablet bana jasoko dute

GUROT



Zero kilometroko produktuak estimatzen ditugun bezala, zero kilometroko berbekin ere berdin jokatu beharko genuke. Gure eskualdean, esaterako, *paraje* erabiltzen dugu gipuzkoarrek *gertu* esaten dutena adierazteko. Marka da gero, ezagunago egi-ten zaigu nafarrek eta lapurtarrek darabilten *hurbil* hitza mendebaldeko *paraje*, *hurrean* eta *hur* formak baino. Askok pentsatuko dute oso hitz



lokalak direla eta ez direla batere egokiak batuan hitz egiteko edo idazteko, baina aipatutako hitz horiek guztiak topatuko ditugu Euskaltzaindiaren Hiztegian.

Kontrakoa esateko, berriz, *asago* (ahoz, *asao* edo *asau*)

eta *urrin* erabiltzen dira Txorierrin. Bizkaiko herri askotan *urrin* berba ere erabiltzen da. Bitxia bada ere, Nafarroako zati handi batean eta Ipar Euskal Herrian horixe bera erabiltzen da. Baina, kasu honetan ere, gutako asko tematzen gara Gipuzkoa aldeko *urruti* erabiltzen, baita gure ingurukoekin jardutean ere.

Egin diezaiogun tokia parajeikoari, horrela *asago* helduko gara eta!

Parajeko berbak

MIHILUZEGO TXAPELDUN IZAN NAHI DUZU?

Lehen Hezkuntzako 5-6 mailakoa zara?

EUSKARAZ JOLASTU NAHI DUZU?

IZENA EMAN: Txorierriko ludoteketan

NOIZ: martxoaren 10era arte

1. SARIA

MADRILEKO WARNER-ERA

Bidaia - 2 gau hotel batean -
Sarrerak - 3 pertsonentzat

2. SARIA

NAFARROAKO SENDA VIVARA

Sarrerak - Gau bat hotel batean -
3 pertsonentzat

3. SARIA

BIARRITZERA

Aquariumera sarrerak -
"Cité de Lócean"era sarrerak -
Gau bat hotel batean - 3 pertsonentzat

4. SARIA

**MENDEXAKO
ABENTURA PARKERA**

Sarrerak - Bazkaria - 3 pertsonentzat



Oharra: finalurrekoetan edo finalean umeren batek ezingo balu parte hartu, dena delako arrazoiarengatik, zerrendan hurrengo geratu den bikoteak hartuko luke parte lehiaketan, eta bikote horrek jarraituko luke lehiaketa.



Goiko aldean, Laukizko erlojua; ezkerrealdean, Lezamakoa

t: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Eguzki-erlojuak

Denboraren kontzeptua ez da inoiz azaltzen erraza izan. Historian zehar zibilizazio bakoitzak bere erara interpretatu du, Einsteinek guztiz berrinterpretatu arte. Baina ez gara horretaz ariko, denboraren neurketaz baino. Giza-kiak beti eduki du denbora neurtzeko beharrazina. Gaur egun erlojua edo mugikorra begiratzea nahikoa dugu, baina beti ez da hain sinplea izan.

Urteak, hilabeteak, asteak, egunak... erabiltzen ditugu denbora neurtzeko; hala ere, haietako bat ere ez da zehatza. Urteak 365 egun eta "zertxobait gehiago" ditu, eta "zertxobait gehiago" horrek egu-

tegiak aldararazten ditu. Bestalde, hilabeteak eta asteak ilargiaren faseetatik hurbil dauden arren, haiek ere ez dira egun-kopuru zehatzak. Zibilizazio batzuek, gurea tartean, eguzki-egutegiak erabiltzen dituzte; eta beste batzuek, berriz, ilargi-egutegiak. Badirudi egunak ere beti berdina iraun behar duela, baina hura ere aldakorra da urtean zehar.

Ordua, bestetik, neurri guztiz artifiziala da. Antzinako egiptoarrek jada 24 ordutan banatzen zituzten egunak, eta iraupen ezberdina zuten urteko sasoiaren

arabera; antza denez, bertan hasi ziren eguzki-erlojuak erabiltzen. 600. urtean, Gregorio I. aita santuak eliza guztietan erloju-eguzkiak jartzeko agindua eman zuen, eta 1000. urtearen inguruan arabiarrek konturatu ziren neurketa asko hobetzen zela, erlojuan gerizpea ematen duen "makila" Lurraren ardatzarekiko paraleloan jarriz gero: orduak edozein sasoiaren eta tokian ia berdina irautea lortu zen.

Elizetan, jauregietan eta beste eraikin batzuetan zeuden eguzki-erlojuak zer



Bizkaian 80 eguzki- erloju inguru daude oraindik: elizetako dorreetan, jauregietan, udaletxeetan...

ordu zen jakiteko modu bakarra izan ziren urteetan; eguzkia izanez gero, jakina. Nahiz eta 1300. urtean erloju mekanikoak asmatu ziren, XVIII. mendera arte ez ziren oso fidagarriak izan: hortaz, eguzki-erlojuak erabiltzen ei ziren erloju mekanikoak orduan ipintzeko. Handik aurrera erloju mekanikoak zabalduz joan ziren, eta eguzkikoak ordezkatu.

Bizkaian 80 eguzki-erloju inguru aurkitu daitezke oraindik. Gehienak elizetako dorreetan daude, baina jauregietan, udaletxeetan eta beste eraikin batzuetan ere topatu daitezke gutxi batzuk; beti hegoaldean. Gehienak harrian grabatuta daude, eta gutxi batzuk, pintatuta. Zenbakiak erromatar edo arabiar erara idatzita egon daitezke. Txorierrin, Lezamako elizakoa mantentzen da ondo eta eder; Loiukoa, handienetarikoa, nahiko hondatuta dago, eta Erandiokoa, are gehiago. Beraz, edozein elizetako horman eguzki-erlojurik balego, eguzkia lagun, begiratu ordua eta zurearekin egiaztatu. Nolanahi ere, kontuan hartu gaur egun ordua aldatuta dugula eguzkiarekiko: neguan ordubete eta udan bi ordu.



Goiko aldean, Ezkioko erlojuak; eskuinaldean, Mañarikoa; eta behean, Loiukoa



Ibilbide proposamena

Lezaman eguzki-erloju eder bat dugunez, bertan hasi eta amaituko dugu 13 kilometroko ibilbide eroso hau. Markatuta dauden bi ibilbide elkartuz egingo dugu: Goitioltza eta Dorrea. Markatuta egon arren adi egon beharko da. Herriko plazatik Larrabetzurantz abiatuko gara espaloitik. Kilometro eta erdira ezkerreko bidea hartuko dugu, gorantz eta Goitioltza ibilbidearen markei jarraituta. Gora egin, eta bidea amaitu baino lehenago, ezkerretara, lurreko pista polit bat hartuko dugu: bistaz disfrutatuz Bolaleku tabernaren ingurura eramango gaitu. Mikel Zarate abade, idazle

eta eus kaltzaleari eraikitako oroitarria ikusi eta ondoko panelaren azalpenak irakurri ostean, eskuineko errepidea hartuko dugu Goitioltzarantz. Txakolinaren herrian mahastiak ezin dira falta, edonon daude. Eskola zaharretatik –txokoa gaur egun– pasatuko gara eta ezkerreko bidea hartuko dugu segidan. Kilometro erdira adi!, kartela dago, errepidea utzi eta ezkerrean bidezidor bat hartuko dugu. Erdi Arokoa izan daitekeen harrizko zubi eder batetik erreka gurutzatu ostean, basotxotik jarraituko dugu errepideraino. Eskuinera egingo dugu, Athleticen instalazioetatik eta

Oxangoiti baserri ederretik igaro, eta errepide nagusira helduko gara.

Nekatuta egonez gero, lasai, hasierako lekura erraz helduko gara eta; bestela, eskuinetara egingo dugu. Aurrerantzean, Dorrea ibilbidearen markei jarraituko diegu. Kurutzeko ermitara joan-etorria egin ostean, errotondan ezkerreko bidea hartuko dugu. Errepidea amaituta, pistatik jarraituko dugu eta basotik guarda-etxeraino helduko gara. Errepidea gurutzatu, eta pistatik jarraituko dugu. Une batean, markatuta dago, ezkerretara egingo dugu, eta beti behearantz, lurrez zein asfaltoz, Lezamako erdigunera helduko gara. Elizara heltzen zarenean, ez ahaztu eguzki-erlojuari begirada bat ematea.



Euskaraz bizitzen jarraitu nahian

ZORRIZKETAN LEZAMAKO EUSKARA ELKARTEA

Otsailaren 11n, lagunak eta euskaltzaleak batu ziren Lezamako frontoian, Zorritzketan euskara elkarte duela 25 urte jaio zela ospatzeko. Horren kideek mende laurdena daramate lanean, euskara Lezaman hizkuntza bizia izan dadin. Lana goraipatzeko momentua da, baita etorkizuneko erronkei begiratzeko unea ere.

t: Itxaso Marina / a: Zorritzketan

Lurdes Prudencio eta Fernando Olabarrieta dira Zorritzketan euskara elkartearen sortzaileetako bi. Gaur egun zuzendaritza-batzordean ez dauden arren, bazkideak izaten jarraitzen dute eta edozein beharretan laguntzeko prest azaltzen dira beti. Azler Garcia, bestalde, elkartearen kide berrietako bat da, duela urte bi beste bost kiderekin batera Lezaman euskara bultzatzearen lekukoa hartu zuen eta. Elkarrekin Uribarri Topalekuan duen lokalean batu dira hirurak, eta hizpide izan dituzte haren iragana, oraina eta etorkizuna.

“Guk aspaldian ikusi genuen Lezaman euskara elkarte sortzeko beharra. Izan ere, herritar gehienok euskaldunak baginen ere, kalean ez zen euskara entzuten. Gainera, Siadecok egindako azterketa soziolinguistikoak berretsi zuen guk sumatzen genuena: oso herritar-kopuru handiak euskara zekien, baina bakarrik % 17k egiten zuen euskaraz”, gogoratu dute Prudenciok eta Olabarrietak. “Garai hartan, euskararen erabileraren inguruko mugimendu handia piztu zen Euskal Herrian,

*“Ekitaldiek harrera
ona izan zuten
herritarren partetik,
eta euskaraz
egiteko gogo piztu”*

eta testuinguru horretan batzarrera deitu zen udalerrian. Batzar horretan zenbait esparrutako 20 bat lagun batu ginen; eskolako irakasleak eta gurasoen elkarteak, haien artean”. Azaldu dutenez, egoera oso kezagarria zen eta euskararen balioa azpimarratzeko premia ikusi zuten. “Edadekoek ere ez zuten euskaraz egiten, lotsagatik, beharbada. Alde batetik, pentsatzen zuten euren ez zela euskara; bestetik, trenak onurak ekarri zizkion Lezamari, baina Bilbotik gaztelania ere ekarri zuen, eta prestigioa gaztelaniak zuen ustea zegoen. Hortaz, zerbait egin behar genuela erabaki genuen lehen batzar horretan, eta hilero elkartzen hasi ginen: elkarteari itxura emanez joan ginen, antolakuntza egituratuz... Hurrengo urtean elkarte legala eratu zen, eta udalak gelatxo bat utzi zigun”.

Militantzia handikoa izan zen Zorritzketan elkartearen hasiera, eta hurrengo urteetan ere ezinbestekoa izan zen elkartekideen inplikazioa. “Ahalegin handia egin genuen herriko gainerako elkarteek eta herritarrek gu ezagutzeko: batzarrak, bazkide-tzeta-kanpaina, aktak jaso behar, kartelak egin... Lana gero eta handiagoa zen, eta laster erabaki genuen bekadun-figura sortzea, barruko lanaz ardura zedin; deialdia herriko gazteen artean zabaltzea”. Barruko lanaz gainera, herriari begirako ekintzak antolatzen ere hasi ziren. “Gaur egun Lezaman erabat sustraituta dauden ekintzak dira: herri-



zorritzketan
lezamako euskara elkarte

bazkaria herriko jaietan, gaztainak erretzea Gabonetan, txorizoa San Joan gauean, kantu-ikastaroa... Ekitaldiek harrera ona izan zuten herritarren partetik, eta euskaraz egiteko gogo piztu zela uste dugu. Esaterako, lehen gugana gaztelaniak zuzentzen ziren pertsona batzuk gugana euskaraz zuzentzen hasi ziren, dendetan, udaletxean... Era berean, nola-baiteko errespetua irabazi genuen”.

Lehena Txorierrin

Ekidazu abesbatza ere sortu zuten. “Izena Mikel Zaratek idatzitako lehen nobelatik, *Haurgintza minetan*, hartu genuen: Ekidazu. Hori da Euskadiren anagrama -z erabilita-, Francoren garaian ezin zelako Euskadi esan”. Mikel Zarateren heriotzaren 25. urteurrenaren harira hain zuzen antolatu zuten, euren ustez, Lezaman eta inguruan inoiz antolatutako kultur egitasmo handiena. “Urtariletik apirilera bitartean, barikuro ekitaldi bat egin zen: hitzaldiak, mahai-inguruak, kontzertuak, antzezlanak, umeentzako ekitaldiak, bertso-saioak, pilota-partidak, Euskaltzaindiaren batzarra... Gotzaina ere etorri zen meza ematera. Bide batez, altxor

*“Herriar guztiei aisialdia
eta kultura euskaraz
eskaintzeaz gainera, batez
ere gazteak nola erakarri
asmatu behar dugu”*

batzuk gelditu ziren betiko: hiruzpalau liburu, diskoak, irudiak, ekitaldi guztiak batzen dituen dokumentala, *Lezamarro Toponimia* liburua, eskolarako *Gure herria* gida didaktikoa, Mikel Zarateren argitaratu gabeko *Etorriaren zorabioz* poema-liburua eskuratzea eta bere lan guztiak mikelzarate.com webgunean eskuragarri ipintzea... Herri-bazkarian ere 500 lagun inguru batu ginen... Itzela izan zen!”

Zorritzketan da Txorierrin sortu zen lehen euskara elkarte. “Gainerakoak hurrengo urteetan sortu ziren, eta guk hasiera-hasieratik azaldu genuen haiekin harremanetan ibiltzeko gogoia, eta proiektuak elkarrekin batera martxan ipini, hala nola Aikor! aldizkaria eta Baserri Antzokia. Elkarrekin aritzeko gogo hori lotuta, urtero bertso-saioa antolatzen dugu Zamudioko Lagatzurekin batera”. Euskara eta haren erabilera sustatzea izan dute helburu nagusitzat aurreko lehen urteetan aipatutako lehen bilera horretatik. Hala ere, beti izan dira herrian dauden aukeren



eta zailtasunen jakitun. “Guk hurrengo hau barneratuta izan dugu: negarrik ez, Lezaman dagoen egoera da eta kito; saiaturako gara aurrera egiten eta gauzak lortu”.

Urteek aurrera egin ahala, gogoia eta berotasuna apaltzen dira eta horregatik da beharrezkoa bizigarria topatzea eta belaunaldi-erleboia bermatzea. Zorritzketan zuzendaritza-batzordea 2021ean berriro zen azken aldiz. “Presidente bera da, Iñaki Lekerika, baina gainerako kide guztiok berriak gara, eta gazte. Halaber, aipatu beharra dago, ni izan ezik, beste guztiak emakumezkoak direla”, esan du

Garciak. “Gure garaian gizonezko gehiago zeuden”, erantsi dute beterranoek. “Ziur asko, oso esparru maskulinizatuak kenduta, elkarte gehienetan gertatzen ari den aldaketa da; gizartearen bilakaera”, etorri dira bat.

Erleleboa

Lekukoa konfinamenduaren ostean hartu zuten, gizarte osoa pandemiak ukituta zegoen momentu delikatu batean; gainera, elkarteak berak bazituen bere arazotxoak. “Zorritzketan ez zegoen bere momenturik onenean, baina oso momentu txarrean ere ez. Aurreko kideak nekatuta zeuden eta elkartearen jende berria sartzeko beharra azaldu zuten. Gure etorkizuneko erronkak dira urtean zehar egiten diren eta herrian erabat errotuta dauden ekintza horiei eustea eta ekintza berriak ere antolatzea, tradizioak berreskuratzeko eta tradizio berriak ezartzeko; adibidez, Gau Beltza antolatzen hasi gara”. Bere hitzetan, umeentzako aisialdia euskaraz antolatzea erraza da, eta erronkarik potoloena da gazteak euskarara erakartzea. “Helburua da herriar guztiei aisialdia eta kultura euskaraz eskaintzea, baina batez ere gazteak nola erakarri asmatu behar dugu: eskaintza handia eta erakargarria egin, alboetako herrietara joan barik, aisialdia Lezaman bertan eman dezaten. Herriko Gazte Asanbladarekin gabiltza harremanetan horretarako”.

EUSTATEk kaleratutako azken datuen arabera, lezamarren % 64 euskaldunak dira, eta % 17,9 ia euskaldunak; halere,

Bata besteagaz, lezamarrok euskaraz

Zorritzketanek adierazi nahi du “zorriak euskaraz berbetan”. “Elkarteak osatu zenean, lehiaketa txikia zabaldu genuen herriararren artean, haren izena asmatzeko. Jasotako proposamenen artean, gehien gustatu zitzaiguna Igor Urrutikoetxearena izan zen, zeren lezamarro zorriak esaten digute. Berak proposatutako leloa ere aukeratu genuen: “Bata besteagaz, lezamarrok euskaraz”. Logotipoa, bestalde, Bego Vicariok egin zuen, eta duela urte batzuk Ander Lasak berriro zuen”.

Zorritzketan urteurrena eta lana ospatzeko gogoia agerian gelditu zen

otsailaren 11n, herri-bazkarian 165 lagun batu ziren eta. “Egia esan, poz-positik gaude herriararren erantzunarekin. Ekitaldiz betetako eguna izan zen: kalejira, pintxo-potea, Ekidazu abesbatzaren eta Kurutze dantza-taldearen emanaldia, bertsoak, tonbola, musika-saioa...”. Urtean zehar ere ekintza gehiago egingo dituzte urteurrenaren harira, eta espero dute horiek herri-bazkaria bezain arrakastatsuak izatea. Gainera, ekitaldiak argazkietan eta bideoetan jasoko dituzte, urteurrenaren dokumentala egiteko asmoz.



"Leku erreferenteetan euskaraz eginez gero, jendea errazago hurbildu liteke euskarara"

euskararen kale-erabileraren azken txostenean jaso den moduan, Behatokiak Lezamako kaleetan behatutako elkarrizketen % 20,6 bakarrik izan dira euskaraz. "Beherakada egon da eta arrazoen artean egon daitezke, besteak beste, edadeko jendea hil izana eta jende berria etorri izana; nolanahi ere, umeak, gazteak eta

heldu gazteak ere badaude herritar berrien artean, eta suposatzen da euskara badakitela, eskolan ikasi dute eta. Zalentza barik, erronka handia dugu horretan, Lezaman ez delako euskaraz egiten. Adibidea da lagunen koadrilak: guztiek dakite euskara, baina erderaz egiten dute... Hezkuntzan zein Administrazioan ahalegin berezia egin da euskararen alde, baina gero errealtatea da euskara ez dela komunikazio-hizkuntza moduan aukeratzen. Egoera nola aldatu aspaldiko kezka eta erronka da..."

Nahiz eta herri bakoitzeko egoera soziolinguistikoa kontuan hartu behar den, hausnartu duten beste arrazoi bat da helduaro ailegatzean egiten den hiz-

kuntza-hautaketa. "Ea lortzen den jendeak barneratzea euskarak balio duela eskolatik kanpo bizitzeko eta heldua izateko. Izan ere, ematen du gaztelaniaz egin behar dela heldu moduan funtzionatzeko. Azken txostenetan ageri dago hori: umeak garen, euskaraz egiten dugu; gazte eta heldu bihurtuz joaten garen heinean, euskaraz gutxiago egiten dugu; seme-alaba txikiekin, berriz, euskaraz egiten dugu; eta gero, euskaraz egiteari uzten diogu...". Herriko leku erreferenteetan erdera hutsean egitea ere arrazoitzat hartu dute. "Adibide bi ematearren, Administrazioak dirua ipintzen du euskararen aldeko kanpainak egiteko, baina errealtatea da hango langilek euren artean gaztelania hutsean egiten dutela. Frontoian ere gaztelania da hizkuntza nagusia... Leku erreferenteetan euskaraz eginez gero, jendea errazago hurbildu liteke euskarara, eta ohiturak aldatuz joan; gero, jakina, bakoitzaren ardura ere bada". Hogeita bost urteren ostean, beraz, erronka polita eta handia dute euskara ere lezamarrek komunikatzeko eta gozatzeko hizkuntza bihurtu dadin.

Txorierrin euskeraz, ekin eta ekin 35 urtez

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



	B1 Erabiltzaile independentea	B2 Erabiltzaile aurreratua	C1 Erabiltzaile gaitua	C2 Erabiltzaile aditua
Euskaltegiatako ikasleen deialdia	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamena: ekainaren 22tik 24ra	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamena: ekainaren 29tik uztailaren 1era	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamena: uztailaren 6tik 8ra	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamena: ekainaren 22tik 24ra
Deialdi irekia	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamena: ekainaren 22tik 24ra	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamena: ekainaren 29tik uztailaren 1era	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamena: uztailaren 6tik 8ra	Idazmena: maiatzaren 3tik 6ra Mintzamena: ekainaren 22tik 24ra

Matrikulazio epea: martxoaren 27tik apirilaren 4ra

Informazio gehiago: habe.euskadi.eus



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrri.eus

Zirrikitua

Eriz Moreno (Bilbo, 1982) eta Amaia Molinet (Lodosa, 1988) artistek zeharkako ikuspegi historiko batean oinarritutako proiektu artistikoa proposatu dute, Larrabetzun Gerra Zibilaren aztarnak behatuz. Proiektuan, gatazka ez da soilik gertakari historiko sorta bat; tokiko ikuspegia eta sortzaileen ikuspuntu pertsonala ere

barruan baitaude. Emaizta argitalpen bat da, bisita gidatu batekin osatu daitekeena.



Zirrikitua

Baietz esaten duena eta ezetz esaten duena

(...)

Eman nuen erantzuna ez zen zuzena, baina zuen galdera are okerragoa da.

A dioenak ez du zertan B esan.

A errakuntza bat zela konturatzea gerta daiteke baita.

(...)

Testu klasiko baten irakurketaren bidez, Ane Seijasen (Amurrio, 1996) eta Julen Sainz de Rozasen ikus-entzunezko pieza honek Gerra Zibileko lurraldeari buruzko gogoeta egin nahi du. Horretarako, Bertolt Brechtek 1930ean idatzitako *Der Jasager und der Neisager* (Baietz esaten duena eta ezetz esaten duena) idazlana aukeratu dute. Antzerki labur hau Taniko obra japoniarrean dago oinarrituta eta Brechten pieza didaktikoetako bat da; "Marxen materialismo dialektikotik abiatutiketa antzerki ortodoxotik antzetzeko idatzitako irakaspeneko obra txikiak". Antzezlanak Lucio Uriartek euskaratu du proiektu horretarako: hasiera berdina da, baina amaiera ez, ordea, eta amaierak zati bi ditu. Ikus-entzunezko pieza ezaugarri formal horretan dago oinarrituta, testua eta Gerra Zibileko Larrabetzu lotzeko: bideoaren lehen zatia Bizkargi mendian gertatzen da; bigarrena, Gaztelumendin.


Oroimen artistikoa

2021ean, Larrabetzuko Udalak hitzarmena sinatu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako fakultatearekin, bertako artistek Larrabetzuko memoria historikoa jorrazteko. Guztira hiru proiektu garatu dira bost artisten artean, eta emaitza Anguleri Jauregian jarri zen ikusgai otsailean. Sortzaileek ohiko euskarri fisikoetatik alde egin dute eta inmaterialitatea eta ikus-entzunezkoak lehenetsi.

Hona hemen orain ez dagoena

Honek oroimen historikoaren aztarnak aztertu ditu. Liben Svaart (Leioa, 1994) ikertzen ibili da eta eta prozesuan sortu dituen artelanak erakutsi ditu. Alde batetik, soinu pieza bat, 31 minutukoa, Sol notaren ñabardurak plazaratzen dituen; bestetik, soinuarekin batera etengabe errepikatzen den animazio bat jarri da ikusgai. Biek batera memoriak daukan lausotasuna adieraziko dute. Erakusketa osatzeko, bisitariak etxera eraman dezakeen orri tamainako piezak egongo dira ikusgai.





Baietz esaten duena eta ezetz esaten duena



ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Airelitzza doktorea, 11. - 1. ediz.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370


GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 08

RPS: 184/10

TIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



Hona hemen orain ez dagoena

Topaleku Parkea egingo da Sondika eta Bilbo arteko mugan

Sondikako Udalak Artxandan dituen lursailak laga zizkion Bilbori, ingurua aktibatzeke plana garatu ahal izateko. Bilboko Udalak jakinarazi duenez, Artxanda Aktibatzeke Planaren baitan, 3.134.760 euro zuzenduko dituzte Topaleku Parkearen lehen fasera; haietatik 2.500.000 euro Europako funtsekin ordainduko dira. Parkea Bilbo eta Sondika udalerrien arteko mugan kokatuko da, Artxandako iparraldeko hegaleko punturik garaienean, eta ia zortzi hektareako eremua hartuko du. Lanak adjudikatu ostean, bederatzi hilabeteen egitea espero da.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Egitasmoaren helburua da inguru-nearen balioa nabarmentzea eta batez ere familientzat erakargarri egitea. Horretarako, izaera berritua emango zaio, sarbideak erraztuko dira, oinezkoek eta garraio publikoak lehentasuna izango dute eta umeentzako jolas-eremu berria sortuko da. Azaldu moduan, egin beharreko lanak sei eremu bereizitan eta ondoz ondoko hainbat fasetan egingo dira: lehenengo bost eremuak parkea inguratzen duten galtzada eta bideei dagozkie, eta seigarrena, barrualdeari.

Lehen eremua da Aretxabaleta bidea, Nogaroko biribilgunearen eta Ballano txakolindegia artean 370 metro inguru hartzen dituen. Bertako galtzada zabalduko da 3,25 metroko bi erreir jartzeko, eta ezkerreko espaloia ere zabalduko da (2 metro izango ditu). Eskuineko aldean beste espaloia bat egingo da: hasieran 2 metrokoa izango da, baina gero 50 zentimetrora murritzuko da, baterian 22 aparkaleku jartzeko. Era berean, oinezkoentzako pasabide bat eta bi autobus-geraleku atonduko dira.

Bigarren eremuak 500 metroko tartea hartzen du San Rokeko mendebaldeko errepidearen eta aparkalekuaren artean (funikularra). Aparkalekua autobus-aparkaleku bihurtuko da, eta aldi berean hiru autobus hartzeko lekua egongo da. Gainera, autoak aparkatzeko bi gune –bata, 32 autoetarako, eta bestea, 89 autoetarako– atonduko dira, espaloia zabaldu, eta 3,25 metroko bi zirkulazio-errei ipiniko dira. Beste aldetik, telefono-linea eta behe-tentsioko linea elektrikoak lurperatuko dira.



Hirugarren eremuan, San Rokeko ekialdeko errepidean, berriz, ez da aldaketa garrantzitsurik egingo, “kalea duela gutxi konpondu da eta”. Tarte horrek 500 metroko luzera du eta amaieran biribilgune bat ipiniko da, autoek buelta eman ahal izateko. Hormigoizko horma bat ere egingo da, biribilgunearen eta jolas-gune berriaren arteko kota gainditzeko. Laugarren eremua da ekialdeko aparkalekua, eta 150 metro eskas ditu. Landaretzaren zati bat kenduko da, aparkalekua handitzeko eta haren orientazioa aldatzeko, eta zirkulazioaren noranzkoa aldatuko da: bakarrik irteteko izango da, biribilgunerantz. Behe-tentsioko linea lurperatuko da.

Artxamendi bidea da bosgarren eremua eta parkearen beheko aldeko ja-

rraipentzat hartzen da. Oinezkoentzako guneak atonduko dira 300 metro inguruko tarte batean, eta, horretarako, hosto itxurako bide-marrak margotuko dira, funikularra eta parkearen barrualdea lortzen dituen kaletik. Seigarren eremua da parkearen barrualdea. Horrek 80.000 metro koadro inguruko azalera du eta nabarmentzekoak dira haren futbol-zelaia eta berdegune zabalak. Lehen fasean, aisialdirako eta jolasteko gune handia sortuko da bertan, eta bigarren fasean, ibilbide botanikoa izango duten berotegi bat eta urmael bat. San Roke kaleko aparkalekuaren ondoko eskailerak eta alboetako hormak kenduko dira; haien ordez, arrapalak jarriko dira. Aurreikusi da parterreak zabalagoak diren eremuetan belardiak landatzea.



Egitasmoaren helburua da ingurunearen balioa nabarmentzea eta batez ere familientzat erakargarri egitea

Jolas-gunea

Esan moduan, umeentzako jolas-gunea parkearen iparraldean kokatuko da, errepidetik urrunen dagoen eremuan, eta lau gune izango ditu. Gune gorriak salto egiteko zabuak edukiko ditu, eta haietako bat laukizuzen formakoa izango da, gurpil-aulkian erabili ahal izateko. Halaber, egongo dira txirrista, hamakak eta soka-multzoa, rokodromoa, zubiak, eskalatzeko sareak eta poligono-oineko 13 eserlekuko zabua. Gune laranja, bestalde, mendi-hegalak aprobetxatuta, bi pasabide horizontal jarriko dira, eta horietatik hamakak zintzilikatu. Bost txirrista ere ipiniko dira, eta salto egiteko bi zabu biribil.

Aldapa leunagoa dago gune berdean, eta bertan dauden 22 zuhaitz

Umeentzako zabuak, rokodromoa, soka-jolasak, txirristak eta tirolinak ipiniko dira lau gunetan bereizita

handi aprobetxatuko dira soka-jolasak ipintzeko. Zuhaitzez gainera, 40 zutoin jarriko dira hiru jolas-multzo atontzeko: sareak, sokak, zubiak, hamakak, salto egiteko zabu biribil bi... Gune urdinean, azkenik, ipiniko dira bi tirolina bikoitz, 28 eta 33 metrokoak hurrenez hurren, eta sostengu-habea edukiko duten bi zabu. Azken horiek hiru eserleku izango dituzte: bat, sehaska-formakoa; bestea, habia-formakoa; eta azkena, habia-formakoa, mugikortasun murriztuko umeek erabili dezaten.

Garraio publikoa lehenetsiko da parkera ailegatzeko; hala ere, ibilgailu pribatuentzako sarbideak ere kontuan hartu beharko dira, eta parkearen eta funikularren inguruan aparkatzeko leku-kopuruari eutsiko zaio. Nolanahi ere,

aurreikusitakoaren arabera, parkea mugatzen duten kaleen erabilera aldatuko da, parkeari hegoaldean zein iparraldean jarraipena emateko: bi galtzada oinezkoentzat izango dira, eta San Roke bideko galtzadaren goiko aldeak kenduko da. Gainera, Artexabaleta bideko espaloia handituko da, eta bi erraitako errepidea ipini. Auto pribatuak parkera sartzeko hiru bide dituzte gaur egun: Artexabaleta bidea, Santo Domingo eta San Roke bidea; egitasmo berria dela eta, azkena kenduko da.

Artxanda Aktibatze Proiektua Planaren proiektu estrategikoa da eta hurrengo helburu hauek ditu: inguruaren balioa azpimarratzea, topagune bihurtzea eta naturarekin bateragarria den jardueraren ekonomikoen elementu traktore moduan bultzatzea. Horri lotuta, Topaleku Parkeaz gainera, zenbait egitasmo egingo dira, hala nola, laster amaituko den pasealeku-behatokia eta errealtate birtualaren eta areagotuaren proiektua. Bestalde, Pikeko lurzatiaren abentura-parkea atontzeko asmoa dago; muturreko kirola egiteko gunea, Bagatzako lurzatiaren; eta naturari lotutako hezkuntza-proiektua, Santo Domingon.

t: Itxaso Marina / a: Anpuluek

Zamudioko eta Larrabetzuko sei neska gaztek osatzen dute Anpuluek taldea. Azaldu digutenez, haietako batzuk dira Txorierriko Neska Gazteak taldearen partaide ohiak, eta beste batzuk, kide berriak. "Taldea berpizteko beharra sentitu genuen, eta indar handiagoz itzuli". Feminismoak eta gaztetasunak batzen dituzte. "Gure herrietan badaude talde feministak, baina horietako kideak helduagoak dira eta, arazo komunak ditugun arren, kezkek ez dira beti berberak. Izan ere, guk zapalkuntza jasaten dugu, alde batetik, emakumeak izateagatik, eta beste aldetik, gazteak garelako: gaztetasunari lotutako prekaritatea, gure ahotsa ez da hainbeste kontuan hartzen... Horregatik erabaki genuen taldea sortzea. Dena dela, harreman on-ona dugu gainerako taldeekin eta beti gaude elkarlanean ibiltzeko prest".

Euren errebindikazioen artean batez ere lau azpimarratu dituzte. "Euskal Herri euskaldunagoa eta feministagoa lortu nahi dugu, eta gure artean harremanak saretu, uste dugulako emakumeen arteko saretzea oso garrantzitsua dela gure segurtasunari begira aurrerapausoak bermatzeko. Era berean, Txorierrin kontzientzia feminista indartu eta sortu nahi dugu, eta gaur egungo sistema *cisheteropatriarkala* desegin, eta beste bat sortu, non pertsona guztion nahiak eta beharrianak kontuan hartzen diren". Urte hasieran, bertso-poteo feminista egin zuten, eta lodifobiari buruzko hitzaldia. "Datozen egunei begira, gure arteko zaintzaren eta zaintza orokorraren inguruko kafe-tertulua antolatu nahi dugu, eta martxoaren 11n taldea aurkeztuko dugu Hori Bai gaztetxean. Egun osoko egitaraua prestatuko dugu: bazkaria, mahai-ingurua, olinpiadak, kontzertuak... Aurkezpena Txorierriko neska gazteak harremanetan jartzeko tresna

"Zapalkuntza jasaten dugu, alde batetik, emakumeak izateagatik, eta beste aldetik, gazteak garelako"

Neska gazteen arteko sa

ANPULUEK NESKA GAZTEEN TALDEA

Martxoaren 11n, jendaurrean aurkeztuko da Anpuluek neska gazteen taldea. Hori Txorierriko Neska Gazteak taldetik sortutakoa da, indarrak berriztuta, eta bere eginkizun nagusietako bat izango da bailaran kontzientzia feminista bultzatzea eta neska gazteen arteko harremanak estutzea.



izatea nahi dugu. Era berean, gure jarduna eta ekintzak plazaratuko ditugu bertan, ea borroka honetara gurekin ahalik eta neska gehien batzen diren!".

Isilik ez

Hemeretzi urtetik 24 urtera arteko neskek osatzen dute Anpuluek taldea. Aspaldi honetan, feminismoaren kontrako jarrera ageri da Estatuko zein Euskal Herriko gazteen artean. "Hori ez da kontu berria. Borroka feministak ekarri du emakumeok ez isiltzea eta gizonak dituzten pribilegioak mahai gainean jartzea; hortaz, asko haserre dira. Ahaldundu gara eta zalantzan ipini dugu *cisheteropatriarkatua*; eta ez zaie gustatu. Nolanahi ere, ondo egiten gabiltzan seinalea dela uste dugu". Ja-

"Arazoa sistema osoarena da eta hor jarraituko du, beste sistema-mota bat sortu ezean"



rrera matxistei egunero egin behar diete aurre. "Txisteak, aipamenak, ukituak jaietan, ikasgelan mutilen ahotsa emakumeena baino lehenago entzutea, hitza kentzea... Gauza handiak direnean jendeak onartzen du, baina txikiak badira, ahoberoak gara".

Zalaparta handia sortu da "Bakarrik bai da bai" legearen inguruan. Legea sakon ezagutzen ez duten arren, eta adituak ez direla azpimarratu badute ere, euren iritzia dute. "Garrantzitsutzat jotzen dugu, erdigunean gure onespina ipintzen duelako: ez dugu geuk frogatu behar erasoak jaso dugula, eta, hortaz, ez gaituzte epaitzen; gainera, babes handiagoa dugu salatzen dugun momentutik. Gure ustez, epaile matxista batzuek legea txarto interpretatu dute zigorrak murrizteko, eta eskumako alderdi eta komunikabide batzuk hori erabiltzen dabilta, legeak atzera egin dezan eta, besteak beste, gure onespina erdigunetik kentzeko. Ikusiko dugu azkenean zer gertatuko den... Dena dela, nahiz eta legeak inportanteak izan, ez dute arazoa konpontzen: arazoa sistema osoarena da eta hor jarraituko du, beste sistema-mota bat sortu ezean".

rea ehunduz



ANPULUEK

Elkarlanean

Aipatu moduan, Anpuluek taldeko neskak prest daude gainerako elkarte feministekin elkarlanean ibiltzeko. "Azaroaren 25aren haritik deitutako mobilizazioekin bat egin genuen, eta aurrerantzean ere haiekin bat egitea espero dugu. Izan ere, deialdi bat egin beharrean, indarrak batzea da inportantea. Beraz, lagunak animatuko ditugu euren herrian antolatutako ekintzetan parte hartzera".

Mugimendu feministak Martxoaren 8ko errebindikazioen erdigunean zaintza ipini zuen iaz. "Bide beretik jarraituta, aurtengo leloa izango da «Denon bizitzak erdigunera». Sistema honetan, langile-klaseko emakumeok hartu dugu zaintzaren ardura beti, etxean, lantokian, harremanetan... Lan hori isilpean egiten dugu eta doakoa da. Gugatik ez balitz, ez litzateke zaintza-sistema sostengatuko. Horregatik,

hura iraultzeko aldarrikapena ez da bakarrik Martxoaren 8ra bideratuko: mobilizazio-prozesu baten hasiera izango da eta epe ertainera ere deituko da mobilizazioetara".

Euskal Herriko Neska Gazteen sarearen parte ere badira. "Kezka eta beharrian antzekoak ditugulako sortu zen taldea, elkarlanean ibiltzeko eta gure arazoei era bateratsuan erantzuteko. Elkartzeko eta ahalduztzeko gunea da, eta gure borroka euskaraz egitea hautu dugu; hala ere, euskara ez dakiena ez dugu baztertzen, eta baliabideak sortzen ditugu gurekin jardun dezan. Banatuta eta isolatuta egon gaitzen nahi du sistemak, eta, horren aurrean, gure esparruak sortzeko eta autodefentsa feministaz armatuta borrokatzeko beharra ikusten dugu: guk egiten ez badugu, ez du beste inork gugatik egingo".

NEGUKO DENBORALDIKO ESKAINTZA BEREZIAK!

> STOCK <
LIKIDAZIOA!
Neguko eta uretarako arropa

velilla

Katalogo zabala

Ekipatu

Laneko arropa



Astlehena-ostirala
8:30-13:30/15:00-18:00
Larunbata
10:30-13:30



Aparkaleku propioa atean



tiendasondika@ekipatu.com



722 819 774

Txorierri etorbidea 15

SONDIKA

Marisol Couceiro, Loiu Gurenako zuzendaria da; Amaia Ayarzagüena, erizainen burua; eta Eunete Luzuriaga, psikologoa. Hirurek osatzen dute lan egiteko modu berriaren talde eragilea. Couceirok azaldu digunez, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako bizikidetza-unitateei buruzko heziketa-saio batzuetan hartu zuten parte, eta hasieran apur bat eszeptikoak baziren ere, azkenean ohartu ziren eredu eza zehar ahal zela zahar-egoitzan, eta hainbat gauza aldatu. "Jakín badakigu norberaren etxeak ez duela parekorik, baina gu beti saiatu gara egoiliarrek etxean bezala sentitu daitezela. Bizikidetza-unitateei esker, etxeko giro hori askoz nabariagoa da eta egoiliarrek aktiboago egotea ekarri du".

Lehenengo bizikidetza-unitatean 25 pertsona daude; bigarrenean, 18; eta hirugarrenean, 23. "Dekretuan jasota dagoenez, lagun-kopurua tokiaren ezaugarrien arabera da; hala ere, unitate batean ezin dira 25 pertsona baino gehiago egon. Era berean, logelak unitatearen barruan egon behar dira eta haietako % 75 banakoak izan behar dira. Egongela ere egon behar da, eta egongelaren barruan, sukalde egokitua. Aparteko unitateak dira; hau da, unitate batera joateko ez da beste unitate batetik pasatu behar".

Kanpotik ikusita, pentsatu liteke logikoa dela bizikidetza-unitateak ondoen dauden egoiliarrekin martxan ipintzea; hala ere, Couceirok erabaki zuen egitasmoa muga gehiago dituztenekin hastea. "Autonomoak direnak eta bu-

Etxean bezala

Duela urtebete zahar-egoitzari lotutako ikuspegia aldatu zuten Loiu Gurenan, eta harekin batera egoiliarrek artatzeko modua ere bai: bertan hiru bizikidetza-unitate atondu dira eta egoiliarrek etxeko giro goxoagoan bizi dira gaur egun. Egokitzen garrantzitsuak egin behar izan dituzten arren, filosofia-aldaketak onurak eta poztasuna ekarri dizkie egoiliar, senide eta langileei.

rua ondo dutenek euren kabuz bilatzen dute denbora nola eman, eta leku batean gustura ez badaude, beste batera joaten dira; edo kexatzen dira. Nariadura kognitibo handiagoa dutenak, berriz, ez dira nabarmetzen, eta denbora eserita edo telebista ikusten ematen dute. Horregatik pentsatu nuen egitasmoa modua izan litekeela egoiliar horiek aktibatzeak. Eta horrela izan da, bere esanetan, egoiliar gehienengan hoberako aldaketak sumatu dituztelako.

"Etxeko giroa askoz nabariagoa da eta egoiliarrek aktiboago egotea ekarri du"

"Adibidez, gure egoiliar bat apur bat obsesionatuta zegoen salmenta-makinarekin eta beti ikusten genuen bere inguruan. Orain, berriz, egongelan gelditzen da eta antolatutako ekintzetan hartzen du parte; Internet erabiltzea ere gustatzen zaio...".

Egoiliarren aktibazio horretan gero-kultoreen lana ere ezinbestekoa izan da. "Lan egiteko modua aldatu da: lau pertsonako erreferentziako gero-kultore bat dago, eta, hortaz, egoiliar bakoitzak eta bere familiak erreferentziako gero-kultore bat dute. Horri esker, alde guztien arteko harremana askoz estuagoa eta errazagoa da, eta hobeto ezagutu ahal ditugu egoiliar bakoitzaren egoera, beharrianak eta kezak. Gainera, psikologoak hasieran-hasieran azaltzen dio erreferentziako gero-kultoreari zein den bere erreferentziako egoiliarren bizitza-historia, eta beste langile batek zer-bait antzematen badu, egoiliarren erreferentziako gero-kultoreari jakinarazten dio". Bizikidetza-unitate bakoitzean kontrol-gune bat dago eta langileek momentuan erregistratu ahal dituzte gertakariak eta erregistratu beharreko informazioa.

Usainak

Lan egiteko moduaren aldaketak ahalbidetu du denbora gehiago izatea egoiliar bakoitzaren gustuei eta beharrianak arreta handiagoz erreparatzeko eta haiekin ekintza gehiago egin ahal izateko. "Adibidea ipintzearen, jakin dugu egoiliar bati puzzleak egitea gustatzen zaiola, eta, beste aldetik, langileek kafea prestatzen dute unitateko bizilagunentzat eta guztien artean bizkotxoak egiten dituzte, edo zenbait erre-zeta. Beharbada, guztiek ezin dute modu berean prestatze-lanetan parte hartu,



baina adi egoten dira, entretenituta, eta argibideak ematen dituzte: aurreko egun batean taloak eta txorizoak egin genituen eta egoiliar batek txarto egiten genbiltzala adierazi zigun; arrazoia zuen". Halaber, orain gerokultoreak ere deitzen dituzte talde psikosozialaren bileretara eta, ondorioz, arreta- eta bizi-planari ekarpena egin diezaioke eta informazio zehatzagoa dute egoiliarrei buruz. "Protagonismoa handiagoa dute eta poz-pozik daudela adierazi digute".

Langileak ez ezik egoiliarrek eta euren familiak ere pozik daude. Izan ere, etxeko giroa sortu da bizikidetza-unitateetan eta patxadaz begiratu ahal diote elkarri, eta momentuak partekatu; gelan nagusitzen diren usainek oroitzapenak eta sentimenduak azaleratzen dituzte. "Sukaldea familiek ere erabili dezakete, pentsatzen dugulako hurbiltasun-sentsazioa areagotzen duela: amamaren edo aitaren etxera noa eta kafea eta pastak hartu ditzaket. Hobeto sentitzen dira guztiak". Nolanahi ere, erronkak dituzte epe laburrera. "Sail bakoitzaren eta langileen erronkez gainera, familie-



eskatu diegu logela pertsonalizatu dezatela. Burua hobeto dutenek eskatu ohi dute argazki edo gauza bat edo bestea ekartzea, baina okerrago dabilzanek, ez, eta bultzatu behar ditugu: leku abegikor batera sartuz gero, detaile edo oroigarri batek zer pentsatua ematen du, ziur asko; bestela, berdin dio, giroa beroagoa da eta".

Loiu Gurena zahar-egoitzan filosofia berria ezartzeak ahalegin handia ekarri du: alde batetik, lanak egin behar izan dira bizikidetza-unitateen ezaugarrietara egokitzeko, eta, ondorioz, hamar laguntzako tokia kendu da; eta bestetik, langile gehiago kontratatu behar izan dira. Hala ere, zuzendaritzaren asmoa da etorkizunean, pixkanaka-pixkanaka, bizikidetza-unitate gehiago baimentzea. "Dena dela, argi utzi behar da filosofia zahar-egoitza osora zabaldu dela. Hau da, bizikidetza-unitateetatik kanpo ere erreferentziazko gerokultore bat dago lau egoiliarreko eta haiek ere lan egiteko modu berrira moldatu dira. Era berean, gainerako egoiliarrek proiektuaren parte dira eta egongela nagusian gune bat atundu dugu, eta, besteak beste, teontzi bat, esnea berotzeko gailu bat eta aire bidezko frijigailu bat ipini, euren gauzatxoak egin ditzaten. Eraikinaren ezaugarriak kontuan hartuta, badakigu ezin izango ditugula egoitza osoan bizikidetza-unitateak baimendu, baina us-te dugu lan egiteko modua eta filosofia berbera izan behar dela".



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

BABESPEKO

APARTAMENTUAK

600 euro

asistentzia sanitarioa (24 ordu)

ZURE NEURRIRA



EGONALDIAK

EGOITZEAN

egunean

gauean

asteburuetan

Unbe txiki bidea 9

LOIU 48180

(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049

www.gurena.com

Zibersegurtasunari buruzko ikastaroa

t: Joanes Camara, gizarte-teknikaria

Eusko Jaurilaritzak Basque Cybersecurity Centre (BCSC) erakundea hautatu du euskal gizartearen zibersegurtasuna sustatzeko eta garatzeko, hari lotutako jarduera ekonomikoa dinamizatzeko eta sektorea sendotzeko. Erakundearen kontzientziazio-zerbitzuak zibersegurtasunari buruzko tailerrak antolatzen ditu hezkuntzako profesionalentzat; familientzat; Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Ikasgela Egonkorreko ikasleentzat; umeentzat; nerabeentzat; eta heziketa formalek kanpoko helduentzat, hala nola klubetako eta elkarteetako ki-deentzat. Tailerrak PantallasAmigas enpresak ematen ditu.

Zehatz-mehatz, sei ikastaro eskaintzen dituzte: Segurtasuna Interneten, Zibersegurtasuna bideo-jokoetan, Mugikorra neurritz erabiltzea, Etxeko zibersegurtasuna eta zibersegurtasun pertsonala, Interneten erosketa seguruak

egitea eta Ziberbullingi, genero-ziberindarkeriari eta Interneteko beste indarkeria-mota batzuei aurrea hartzea. PAI Bitartean zerbitzuko kideok ikastaroetan parte hartu ahal izateko aukera baliatu dugu, oso interesgarritzat jotzen baitugu gure erabiltzaileek teknologia berrien eta gailu elektronikoen inguruko ezagutza eduki dezatela. Hortaz, bi ikastaro egin ditugu: lehenengoan zibersegurtasuna landu, eta hizpide izan ditugu norberaren informazioaren pribatasuna eta Interneten ondo babestuta ez egotearen ondorioz egon daitezkeen arazoak; bigarrenean, mugikorra egunean zenbat ordutan erabiltzen dugun hausnartu dugu, zertarako, gizarte-sareak, doako aplikazioen eta jokoen deskarga arriskuak... Derioko PAI Bitartean eguneko zentroko langileok eta erabiltzaileok eskerrak eman nahi dizkiogu BCSC erakundeari, komunitaterako egiten duen lanagatik eta gure zentroraino ikastaroak ematera hurbildu izanagatik.



Eskumuturreko solidarioak



t: Ane Piriz, gizarte-teknikaria

Martxoaren 8ko atarian gaude. Aurreko hiru urteetan moduan, datarekin bat egin, eta gizarte-helburua duen ekimen komunitario bat ipiniko dugu martxan: eguneko zentroko erabiltzaileek eskumuturrekoak egingo dituzte, egitasmo solidario bati dirua emateko. Eskumuturrekoak Derioko leku hauetan egongo dira salgai: Adarve eta Irintzi tabernetan, Arteaga eta Imaz estankonetan eta Nagusien Etxean. Dohaina eginda, nahi duenak eskumuturrekoa erosi ahalko du. Aurten batzen den dirua zuzenduko da ACAMBI Bizkaiko Ginekologiko eta Bular Minbiziaren Elkartera eta gizartetik kanpo dauden pertsonengana. Lerro hauetatik esker ona adierazi nahi diegu urterik urte ekimenean parte hartzen duten saltokiei, gure lana herritarrengana hurbiltzen laguntzen digutelako, eta ekimena babesten duten herritarrei, ekarpena egiten baitute egitasmoa antolatu ahal izateko.

tik tak

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55

Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txarriko ibarribidea 3-4
413. bulegoa
48102 GORRIO

Txarriko ibarribidea 3-4
413. bulegoa
94 454 54 96
a.amondarain@telefonos.net

auzoKide

Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheka B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

t: @txiribita_kosmetika

Allium Cepa, l. Jatorriz Persiakoa eta Ekialde Ertainekoa da, baina mundu osora zabalduta. Autokontsumoko laboreak da eta elikadura-burujabetza sustatzen du. Berakatzak eta porruak bezala, liliazeoen familiakoa da. Lurpeko erraboila da: lehen urtean erraboila sortzen da (kipula), eta bigarren urtean zurtoina sortzen da, loratzen da eta fruitu ematen du (haziak).

Ezaugarri dietetikoak

Sukalde tradizionalan ezinbestekoa da eta oso nutrizio-balio handia du: glukosido sulfurodunak, entzimak, oligoelementuak (potasioa, burdina, sufrea, kaltzioa, fosforoa...) A, B, C eta E bitaminak, flabonoideak eta glukozinina, batzuk aipatzearren. Egunerok kipula bat jatea osasungarria da, eta hura prestatzeak negar apur bat eragingo digun arren, epe luzera zoriontasunez eragingo digu barrea.

Kipula-marmelada:

Kipula juliana eran ebakiko dugu eta uretan egingo dugu, harik eta biguntzen den arte. Birrinduko dugu. Kipula kilo bakoitzeko 400 gramo azukre botako dugu eta limoi erdia; gainera, nahi izanez gero, gatza eta piperra ere bota ditzakegu. Nahi dugun testura lortu arte kozinatuko dugu, eraginez, itsasi ez dadin. Poteratuko dugu, eta kontserbatu nahi izanez gero, Maria bainuan egin.

Ezaugarri sendagarriak

Aparteko antibiotikoa da infekzioak eragiten duen bakterioen aurrean. Gainera, bere eragin antibiotikoagatik, antiinflamatorioagatik eta mukolitikoagatik (mukiak kanporatzea errazten du), kipula ezin hobea da arnas gaitzetarako: eztula, sinusitisa, faringitisa, laringitisa, bronkitisa eta asma. Diuretikoa eta arazgarria ere bada: txizaren azidotasuna txikitzen du eta, hortaz, lagungarria da azido urikoa eta metabolismoaren beste hondar toxiko batzuk kanporatzeko. Era berean, odola garbitzeaz gainera, odol-zirkulazioa hobetzen du, eta glukosa-maila txikitu.

Bestalde, metabolismoak aktibatzen duten eta odola sortzea eragiten duten entzimak ditu, eta horregatik da organismoaren bizkorgarria eta laguntzen dio digestioari. Burdina eta oligoelementuak ditu, eta bere eragin

Kipula

antibiotikoa eta antiseptikoa direla-eta erregulatzen du hesteetako flora eta usteltze-prozesuak gelditu. Digestio-jariakinak areagotzen ditu (gastrikoa, hesteetako eta pankreakoa) eta laguntzen die digestioari eta nutrienteak hartzeari; hala ere, ez da gomendagarria hiperaktibitatea eta urdaileko ultzera dutenentzat. Azkenik, gibelaren funtzio metabolikoa eta desintoxikatzailea bizkortzen du, eta organismoari eragiten dion biziberritzeagatik esaten da afrodisiakoa dela.

Kanpoko erabilera sendagarriak

Faringitisa edo anginak handituta baditugu, gargarak egin ditzakegu egosketak-salda erabilita. Halaber, kipula egosiaren kataplasma edo zuku freskoaz bustitako konpresak ipini ditzakegu hauek sendatzeko: zauriak, furunkuluak, erroitzak, aknea, abzesuak eta erreduak; izan ere, horiek infektatzea saihesten du eta orbaintzea azkartzen du. Abzesuak umotzeko, gainera, zuzenean ipini daitezke egositako kipularen geruzak. Intsektuen eta liztorren ziztadak arintzeko ere azalean zuzenean igurtzi dezakegu kipula.

Barruko erabilera sendagarriak

Kipula-xarabea hartu dezakegu arnas gaitzak arintzeko. Xarabea egiteko, zenbait kipula-xerra ur apur batean egosiko ditugu, eta ezti edo azukre nahikoa botako dugu;

ore homogeen bat egingo dugu, eta koilarakadaka hartu.

Ahal den guztietan eta urdailak minik hartzen ez badu, gordin hartuko dugu, eragin handiagoa du eta. Ebaki edo birrindu dezakegu, eta entsaladetan hartu olioaz eta limoiz onduta; osagarri moduan ere hartu dezakegu. Gomendioa da egunerok gutxienez kipula ertain bat hartzea; gehieneko dosia tolerantziaren arabekoa da. Beste aldetik, kipula egosia edo erreka hobeto onartzen da, baina printzipio aktiboen zati bat galtzen da: batez ere eragin antibiotikoa murrizten da. Egosketak-salda edan dezakegu, eta erabilera sendagarrietarako, egunerok bizpahiru kipula egosi edo erre hartu daitezke.

Erabilera kosmetikoak


Ilea haztea estimulatu du, eta azala leuntzen eta edertzen du. Azala garbitzen du eta oso gomendagarria da aknea eta pikortak hobetzeko: azalean kipularen geruza egosiak eta epelak jar daitezke. Emaizta hobeak izateko, kanpoko erabilera eta barnekoei uztartu daitezke.

Ilerako kipula-espraiak:

Ontzi batera katilukada bi ur bota, eta su motelean bi kipula txiki egingo ditugu 15 minutuan. Hozten denean, iragazi, eta esprai-burudun ontzi batean sartuko dugu. Egunean behin zipritinduko dugu ilearen sustraiaren gainean, eta hartzamarrez leunki igurtzi.



EmariAPP, Historiako eta gaur egungo emakumeak ezagutzera emateko jolasa



orokorra ikusteko, Sailkapena atalera jo beharko da: bertan erabiltzaile guztien artean zein postutan gauden ikusiko dugu. Info atalean, beste aldetik, oharrak eta harremanetarako bideak daude, baita jolaserako emakume gehiago proposatzeko aukera ere. Azkenik, goiko aldeko bozgorailuan sakatuta, sustatzaileek bidalitako jakinarazpenak irakurri ahaliko ditugu, eta hirukia sakatuta, jolasteko pantailara joango gara. Jolasteko pantailari dagokionez, hango botoia urdin ilun badago, horrek adierazi nahi du jolasteko partidak ditugula, eta more badago, asteko partidak jolastuta ditugula.

Kalaka kooperatiba-elkarteak sortu du mugikorretarako jolas-aplikazioa. Helburua da emakume erreferenteak eta euren ekarpenak ezagutzera ematea, eta, horrela, aitortza egin. Pistak irakurrita, jokalaria asmatu beharko du zein emakume den. Bestalde, euskaraz garatu da, eta, hortaz, gizartea berdintasunarekiko sentikor bihurtzeko tresna ez ezik euskararen eguneroko erabilera sustatzeko tresna ere bada.

Esan moduan, aplikazioaren muina da eguneko emakumea zein den asmatzea. Horretarako, bost pista emango dira eta gehienez minutu bat eta 30 segundo egongo dira erantzuteko. Pistak banaka agertuz joango dira, baina "Pista berria"

botoia ere sakatu ahaliko da. Emakumea nor den dakigunean edo erantzutera ausartzen garenean, "Erantzun" botoia sakatuko dugu eta lau emakumeren izenak agertuko dira, haietako bat aukeratu dezagun. Puntuazio altua lortzeko, erantzun beharko dugu ahalik eta pista gutxien erabiltzea eta ahalik eta arinen.

Aplikazioak hainbat atal ditu. Profila atalean, gure izena edo ezizena idatzi beharko dugu, eta hor dauden ikonoetatik bat aukeratu. Taldeak atalean, lagunekin taldeak sortzeko aukera dago: talde bakoitzaren funtzioa eta kideen sailkapena jasotzen dira bertan. Emariak atalean, partiden zerrenda ikusi daiteke, hilabeteetan antolatuta: partida bakoitzaren puntuazioa eta erabiltako pista-kopurua eta denbora. Sailkapen

Egitasmoa

Historiako eta gaur egungo emakumeak ezagutarazteko jolasa da EmariApp; emakume horien artean daude kirolariak, zientzialariak eta kulturgileak. Jolas-aplikazioa Emariak egitasmoaren baitan sortu da. Egitasmoaren harira, Emariak liburua kaleratu zen 2018an: 10 emakume erreferenteren biografia eta argazkiak jaso ziren bertan, baita bi kolektibo feministenak ere. 2020an, Emariak karta-jokoa sortu zen: karta-sorta osatzen dute 39 emakume erreferentek eta komodin batek; kartak arloka daude banatuta eta arlo bakoitzean hiru emakume jaso dira, karta bakoitzean emakumearen argazkia eta biografia laburra agertzen direla. EmariApp iaz kaleratu zen eta, momentuz, egitasmoaren azken urratsa da.

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO
Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Txoriherri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31



Egunsentia Lezaman

Zortzi urte dira San Mameseko arkua Lezaman ipini zela. Argazkia 2022ko azken egunean atera nuen. Egunsenti zoragarria izan zen egun hartakoa, eta kolore bizikoa: gorria, horia, urdina... Edertasunez betetako momentua duzue, guztiok gozatu dezagun.

Argazkia: Alex Albarrán

 **PELUKERIA
ESTETIKA**
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

 **TABERNA
GAZTEDI**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com 

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

elekma
URRIATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXARRAK

Lehenengo merkatuak • Prezioak onenak.

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Telerratu etarabada: 25/3.Nº • 48180 Ibañeta
Tf: 944 599 232
www.elekma.es

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Txipiroi-entsalada epela

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 400 g txipiroi
- Eskarola bat
- Kipula bat
- 4 baratxuri-atal
- 16 cherry tomate
- 50 g ogi (aurreko eguneko)
- Irina
- Oliba-olioa
- Ozpina
- Gatza
- Perrexila



a: Ronny Siegel
(www.pexels.com)

Prestatzeko era:

Txipiroiak garbitu, eta gordeko ditugu garroak, hegala eta gorputzak; azken horiek arotan moztuko ditugu. Hiru baratxuri xaflatan ebakiko ditugu, eta zartagin batean erregosi. Ogi-puskak gehitu, eta frijituko ditugu, harik eta gorritzen diren arte. Zartaginetik atera, eta sukaldeko paperaren gainean ipiniko ditugu, olio xurgatu dezan. Kipula ere arotan ebakiko dugu, irinetik pasatu, eta frijituko ditugu. Kipula-aroak ere sukaldeko paper gainean ipiniko ditugu. Gatza botako diegu. Zartaginean olio apur bat ipini, eta bero-bero dagoenean saltetuko ditugu txipiroiak. Perrexil txikitua eta gatza botako diegu.

Bestalde, eskarola garbitu, eta nahi moduan ebakiko dugu. Ontzi batean zabalduko dugu eta bere gainean ipiniko ditugu tomateak (erditik ebakita), ogi-puskak, kipula-aroak eta txipiroiak. Bizigarria egiteko, beste baratxuria txikitu, eta pote baten barruan ipiniko dugu; olio, ozpina eta gatza gehitu, poteari estalkia jarriko diogu, eta ondo nahasiko dugu. Entsaladari botako diogu gainetik.

Arrautzak perretxiko eta espinakekin

Osagaiak (4 pertsonentzat):

- 8 arrautza
- Hiru patata
- 200 g perretxiko
- 2 baratxuri-atal
- 150 g hirugihar
- 125 g espinaka
- Erromero-adaxka bat
- Ezkai-adaxka bat
- Oliba-olioa


Prestatzeko era:

Patatak zuritu, garbitu eta dadotan ebakiko ditugu. Egosi-ko ditugu. Zartagin batean olio apur bat ipiniko dugu eta berro dagoenean patatak gehitu, eta gorritu arte frijituko ditugu. Erromeroa, ezkaia (biak garbituta eta txikituta) eta gatza botako dizkiegu; ondo nahasiko dugu. Hirugiharra tiratan ebaki, eta olio apur batean frijituko ditugu. Ondoren botako ditugu perretxikoak eta baratxuria (biak txikituta). Gatzetaz eta piperrez onduko dugu. Azkenean, espinakak gehituko ditugu. Eragin eta sutatik kenduko dugu.

Beste aldetik, labea 200 gradutan berotuko dugu. Kazola-txo batean patatak, hirugiharra eta espinakak ipiniko ditugu, eta haien gainean bi arrautza kraskatu. Labera sartu 10 minutu inguru.




a: Andie Cumber
(www.pexels.com)



Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.onlykidsonly.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Alaska (Elkar),
Castillo Suárez

García.

–Bichta éder (Elkar),
Eneko Bidegain
Aire.

–Zeozer gaizki doa
(Pamiela), Beatriz
Chivite Ezkieta.

–Euskal Herria

furgonetaz ibilbiderik onenak (Sua),
Arkaitz Apalategi eta Nagore
Lizarralde.



LITERATURA: GAZTEAK

–Kapibarak (Txalaparta), Alfredo
Soderguit 2023. Itzultzailea: Garazi
Arrula Ruiz.

–Elsa eta paradisua (Erein), Mariasun
Landa Etxebeste. Ilustratzailea: Elena
Odriozola Berastegui.

–Zuhara. Clionaren kanpaiak
(Alberdania), Amaia Telleria.

Sudokua

6	1		9					
			6					
					5			2
		8		5	6			
4			2	7	8			
1	9		7			6		4
	8	2						1
			1				8	

7	8	2	6	3	1	4	9	5
1	3	6	4	9	5	2	8	7
4	5	9	2	8	7	3	6	1
9	6	5	8	7	2	1	3	4
8	7	4	1	6	3	9	5	2
3	2	1	9	5	4	8	7	6
2	9	7	5	1	8	6	4	3
6	1	3	7	4	9	5	2	8
5	4	8	3	2	6	7	1	9

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Teorierikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:


www.taxiaeropuertobilbao.com

DESCARGA APP-A

TAXI FEMADE

L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OAKLAND
ENGLISH



Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: *Assata Shakur. Autobiografia bat*, Joseba Sarrionandiaren eskutik. Martxoaren 15ean, 19:00etan, Errebale jauregian.

Ikuskizunak

Larrabetzu

- > *Loreak belaunetan* dokumentala, eta horren protagonistetako birekin solasaldia. Martxoaren 16an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.
- > Zinekluba: *Maritalavista*. Martxoaren 21ean, 19:00etan, udaletxeko batzararetoan.

Musika

Larrabetzu

- > Abesbatzen musika-emanaldia: Kolutza (Balmaseda), Herriko Abestiak (Portugalete) eta Gaztelumendi (Larrabetzu). Martxoaren 18an. Esti Markez. Martxoaren 19an, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean. Sarrera: 10 euro.



Bestelakoak

Lezama

- > Zuhaitz Eguna. Martxoaren 5ean, 11:00etan, Astorki plazatik. Zuhaitzak landatzea, sasimartxoa eta tailerrak.

Larrabetzu

- > Mihiluze txapelketan izena emateko epea: martxoaren 10era arte eskolan edo ludotekan.
- > Umeen udaberriko irteeretan izena emateko epea: martxoaren 13tik 24ra, Anguleri kultur etxean.





Konekta zaitez gurekin!



Parte hartu aikor.eus webgunean

Zure argazkiak eta albisteak bidali



E-posta:
aikortxori@aikor.com



WhatsApp:
688 86 41 35

ZUK
EGITEN DUZU
Txorierrri!

ALAIA FRUTADENDA ZAMUDIO
TALLERI KALEA 5/ 946 850 585



ADARVE KAFETEGIA DERIO
SOLLUBE KALEA 2/ 946 089 531



ZUK EGITEN DUZU TXORIERRI

